


1994ko ekainak 17

240. zenb.

PRESS

ARRASATE




**Badatoz,
badatoz...**



SAN JUAN JAI
ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE
ARRASATEKO
UDALBATZAK
ARRASATEAR
GUZTIOI

ZUEN ZERBITZUAN:

AUKEA, ITURBIDE EGOITZA, UDALAKO INGURUGIRO ESKOLA,
DROGOMENPEKOTASUN ZERBITZUA, KIUB, ESKOLA KONTSEILUA,
GAZTERIA BATZORDEA, MONTERRON KULTUR ETXEA, AMAIA ANTZOKIA.



Arrasatearrok!

Sustar luzea dauka herri honen istoriak eta itzulika dator betiere. Esames genuen Gaztelua, harrizko egia, azaldu zaigu.

Zerbait gehiago dakigu gutaz.

Herensugeak, harmarran, astinduko du bere buztana txistua eta dultzaina entzun orduko. Pilotan ala dantzan egingo ote du?

Esna dezagun behitzat, San Juan hauek ere elkarrekin ospa ditzagun.

Hel dakiela Arrasateko kaleetako oihartzuna urrun ditugun guztiei baina batez ere preso eta errefuxatu politikoei.

Atsegin dakizuela egitaraua, atseginago jaiak.

Ondo Passau!


ALKATEA



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxe: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agoria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Laminaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Loge-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: ASA Elkarte.

ONDO PASAU JAIAK
ZUHAITZ
jatetxea!

BAZKARI
ETA AFARI
ONENAK!!!

Tfnoa: 71 46 08

GATZAGAN

Memesa
79 42 22

San Juanetan, eguna ala gaua gurago?



**Izaskun Oyanguren
Ikaslea
(15 urte)**

Niri gaua gehiago gustatzen zait, "manbo" handiagoa egoten baita.




**Gontzal Landa
Ikaslea
(16 urte)**

Gaua gehiago, niri gustatzen zaidan giroa gauetan izaten delako baina egunean zehar izaten diren ekintzak ere gustatzen zaizkit.



**Ainara Iribar
Ikaslea
(15 urte)**

Gaua, giro gehiago egoten delako. Egunez lo egiten dut.




**Migel Angel Beitia
Ulmako langilea
(48 urte)**

Familia dudanez, gauetz gutxi ibiltzen naiz. Kalera egunez irteten dut.



**Maria Jesus Maiztegi
Etxekoandrea
(72 urte)**

Nik eguna nahiago dut, gauetan niretzako ez da ezer izaten.




**Jon Loiti
Ikaslea
(17 urte)**

Gaua gehiago gustatzen zait, hobeto pasatzen dudalako. Baina aurren ez dakit, azterketak ditut eta ikasi egin behar du.



**Maite Guridi
Etxekoandrea
(51 urte)**

Egunez eguraldi ona egiten badu, hondartzara joaten gara. Beraz, gaua gehiago gustatzen zait.



**Rafa Soriano
Gelmako langilea
(42 urte)**

Egunez ere irteten dut, baina egia esan gauak beste zer-bait du.

• **Txitxinpe** •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

UrIBE Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

LORATEGI

Iturriotz, 7
ARRASATE
Tfnoa: 79 04 67

Garai batean Juanak
desberdintzen diren?



1994ko ARRISKU SOLDATA PROGRAMARAKO DEIA

Arrasateko Udalak jakinarazi nahi die interesatu guztiei aurtengo ARRISKU-SOLDATA Programarako proiektuak aurkezteko epea 1994ko uztalaren 29ra arte zabalik dagoela. Programa hau enpresa ideia bat eta bere negozioa martxan jartzeko asmoa daukanari zuzenduta dago. Proiektuak aurkezteko eta informazio gehiago eskatzeko, **ARRASATEKO UDALAREN ENPLEGU ZERBITZU**ra zuzendu daitezke.



*San Juan jai alaiak opa dizuegu.
Hemendik aurrera nahi duzueneko ferixalekuan
aurkituko gaituzue.*



Ohiana
LORATEGIA



Ohiana
ARTE ETA APAINKETA

ZORIONAK !

Arrasate pasealekua, 8 ARRASATE

Tfnoa: 77 14 56

AMAGARA



**ESTETIKA
ZENTROA**

Erdiko kale, 54
etxabea
ARRASATE
Tfnoa: 79 09 09

San Juanetan, zatoz

CEPA RIOJANARA

Jatetxea / Taberna

**Ferrerias, 19 Tfnoa: 79 20 02
ARRASATE**

Garai bateko San Juanak desberdinak ziren?



Katalina Arregi Etxekoandrea
(71 urte)

Bai, lehen beste modu batekoak izaten ziren. Orain jendea kanpora joaten da, baina lehen denok herrian gertzen ginenez, giro gehiago izaten zen.



Jose Mari Bakero Jubilatua
(66 urte)

Ba beharbada oraingoak hobeak izango dira, oraingo gazteek oztopo gutxiago dute. Lehen, gauza asko gaizki ikusiak zeuden.



Ines Sutil Auzo Laguneko langilea
(50 urte)

Lehen egunez gazteak kalean ibiltzen ziren; orain berriz, gazteak gauz ibiltzen dira bakarrik.



Jose Martin Langabetua
(62 urte)

Lehen zezenak izaten ziren, baina egia esan, oraingoak antzeiakoak dira.



Arminda Frabuas Etxekoandrea
(76 urte)

Oso desberdinak. Lehen musika gehiago izaten zen, musika bandak etorten ziren. Orain ez da ezer egoten.




Antonio Jurado Langabetua
(64 urte)

Antzerakoak dira. Niri ondo pasatzea gustatzen zait eta oraingo jaietan ere ederto pasatzen dut.



Cresencia Aspe Etxekoandrea
(88 urte)

Lehen beste modu batera bizi ginen eta jaiak ere desberdinak izaten ziren. Plazan egiten genuen dantzan eta orain hori ez da egiten.



Jose Maria Talledo Jubilatua
(68 urte)

Oso desberdinak. Lehen ondo pasatzeko aukera gehiago zegoen. Gainera, jendeak izugarri parte hartzen zuen.

Mendi taberna


MENDI DA ZURE ETXEA

Maalako Arrabala, 4
Tfnoa: 79 20 54

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

•••••
**Gurpilen gaineko
diferentziak**

Hauteskunde kanpaina honetan zehar, gizarte honen "Status quo" a zehatz batean isladatzen duen irudi baten lekuko izan naiz. Etxetik irten gabe, gainera.

Alderdi politiko tradizional baten autobus elektorala pasatu da Arrasateetik; berdea zen eta ohizko eserlekuen orde, taldetxoka sakabanaturiko mahaiak eta aulkiak zituen. Hauetako batean zeuden, hain zuzen, alderdiko zenbait buru, okupaturik zegoen mahai bakarrean. Honen ostean "Pesa"ko bat igaroda. Zaharra, jendez gainezka, zaratatsua, baina hori bai, zuriz margotua.

Ez dut "Pesa"koak (barka publizitatea) autobus txarrak direnik esan nahi, ezta onak ere: nire etxe paretik bi autobus pasa dira, bata luxuzkoa eta ia hutsik, eta bestea ezerosa eta bete-beteta; eta honek pentsatzera bultzatu nau, besterik ez. Beharbada kasualitatea izan da, baina argazki bat atera ezker, Andaluziako PPko hautagaiari zapata garbitzaile baten zerbitzuetaz baliatzen egin diotena bezain kaltegarri gerta daiteke, botoak zenbatzeko orduan.

Ez du beraien alde asko esaten, gure esanetara teorikoki dauden pertsonak, kalera hauteskunde garaian bakarrik irtetzeaz gain luxuzko autobusetan egitea; beraien buruzagiok, urteko 365 egunetan era latzagoan egiten dugun

bitartean. Basozain batek, bere etxea bero mantentzeko basoko zuhaitzak erreko baltu bezala ari dira jokatzeko politikari asko.

Nire ustez, autobusak eta garraio publikoak generalean, bultzada handia jaso beharko lukete gobernariengandik; garraio publiko ekologiko, eroso eta eraginkor batzuk, egungo arazo bat baino gehiago konponduko lituzkete. Bitartean, oso ondo deritzot politikoa hauek luxuzko autobusak atsegin izateari, baina politikan sartuta ez gaudenoi ere, ondo bidaiatzeko aukera zabalduko baligute, eskertuko genuke.

ION STEGMEIER

•••••
San Juan Jaiak

Segurako goikaldean (Araba edo Nafarroa aldera doan horretan) kontatu zidatenez, seme bat eduki eta ezagutu ez zuen ama bategandik sortu ziren San Juan Jaiak. Eta seme hori oilo bihurtu omen zen.

Eta zer gertatu zen? Bada, oso izaki arraro bihurtu zen: neska guztiengatik gainerako mutilekin borrokan egiten zuen eta gero ez zitzaion bat ere gustatzen. Beraz, inguru haietako jendearen artean erabaki zuten zer egin behar zen, izan ere belaunaldi bat pasa zen eta emakume bat ere ez zen haurdun geratu: zaharrenak laster hilko ziren eta emakumeek ezin zuten familiarik izan.

Kontua da istorio honek badaukala bere mamia, izan ere ama hilik zen, eta aita, berriz, era arruntean esan ohi dugunez, zoratuta zegoen.

Urteak pasa ahala, sekulako kakaoa sortzen hasi zen han bizi ziren lagunen artean. Neska ezkongabeek, beti leial izan zitzaizkiela uste zuten. Adineko gizonak, haietako ren bat Juan zela pentsatuz. Harremanak oso bitxiak ziren: kontu egizue anai-arreben artean adibidez.

Eta horrela, oiloa hiltzea erabaki zuten egun batean eta denentzat salda egitea: hala egin zen.

Beranduago San Juan eguna hartu zuen Elizak. Baina kontua da jende hura ez zela jaiotza ezagatik desagertu, gertatu zena potoloagoa izan zen oraindik: pentsa, gaur egun oraindik gogoan izan dezagun...

Herriko Jai Nagusi maitateak direla eta kontatzen dizuedan kondaira bat gehiago besterik ez da.

JOSE COSTANA MATA

•••••
Kaixo berriz ere

Arrasaten nauzue berriro, Txagorritxuko "bihotz-konponketa" sailean ustekabean egon ondoren, eta nire estraineko lana eskerrak ematea da, bihotzez (ezin bestela), egunotan nitaz galdetu edota nire familiari musutrukeko laguntza eskaini diozuen guztioi.

Nire eskerron hau zuen

guztionez bada ere, ondoko pertsona eta elkartei bidali nahi diet besarkada berezi bana:

— Arrasate eta Txagorritxuko ospitaletako langileei, primeran zaindu bainaute.

— Goikobaluko nire kidesalbatzaileei, beraien laguntza erabakiorra izan baitzen. Ezin hobeak zarete. Nire maitasuna adierazi nahi dizuet eta musikaz goza dezazuen desio.

— Jon Andueza idazle, aurkezle eta batez ere—nik uste— bihotz handiko gazteari. Bikain aritu zen, ohi duen bezala, Atzeratuen Asteko Jaialdian. Gure laguntza eskatu zigun eta guk gogoz eta bihotzez eman genuen. Niri dagokidanez, gainera, garbi geratu da bere giza-kalitate handia.

Guztioi esker mila eta besarkada bero bat.

EUGENIO ETXEBESTE

TTUKUN

Fotokopiak
 Enkuadernazioak
 Koloretan fotokopiak
 Planoen erreproduktzioa
 Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
 Tfnoa: 79 46 62

**BASABE
 JATETXEA**

Menu eta afariak
 Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84
 ARETXABALETA

UGARTE

Industri
 hornidurak



Arrasate pasealekua
 Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00
 Telefax: 793412

mokasin

Zapatak eta
 osagarriak

Kontzeziño, 6
 Tfnoa: 76 06 78
 ARRASATE

KIROL BAKITZERAKO ERANTZUN BAT



ARRASATE
KIROLAK

JUAN DEUNAREN HAMABOSTALDIA

HAMABOSTEAN BEHIN TXANDALA,
KAMISETA, FELPAZKO SHORT-A ETA
ERREALEKO JOKALARIEK SINATUTAKO
MUNDIALEKO BALOIA

MOTA DESBERDINETAKO ESKAINTZAK:
FUTBOLEKO REPLIKAK
TXIRRINDULARI ERROPAK ETA ABAR...

ARRASATE - MONDRAGON

Tfnoa: 79 46 12

Kontzezino kalea, 8

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritoxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Igualatorria 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udai taldea 79 09 00
 Udai taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero) 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarte 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 17**
 Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.
Larunbata 18
 Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.
Igandea 19
 Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.
Astelehena 20
 Egunez eta gauez: Amezua. Santa Marina.
Asteartea 21
 Egunez eta gauez: Ruiz. Magdalena.
Asteazkena 22
 Egunez eta gauez: Morales. San Andres.
Osteguna 23
 Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerías.
Ostirala 24
 Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.

17 OSTIRALA

ZINEA
 "Mi vida" 7etan eta 10etan.

PINTURA ERAKUSKETA
 Juan Luis Goikolearen pintura erakusketaren inaugurazioa. Harresi aretoan 7etan.

AKORDEOI ORKESTRA
 Aretxabaletako akordeoi orkestraren kontzertua. Aretxabaletako Parrokian, gaueko 10etan.

18 LARUNBATA

ZINEA
 "Agárralo como puedas" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

EUSKARAREN EGUNA
 Aretxabaletan Euskararen Eguna. Arratsaldeko 5.30etan buruhaundiak eta bonba japoniarrak. 6.30etan Sebastopoleko Titiriteroek, "Giza-piztia" antzezlan eskeiniko dute. 8.30etan herri afaria. 10.30etan Maixa eta Itziar trikitilariekin dantzaldia.

PILOTA PARTIDUAK
 Iturripeko frontoian San Juan XV. Esku pilota txapelketa. Goizeko 10.30etan

TXIRRINDULARI LASTERKETA
 Benjamin, alebin eta infantil mailatan, neska-mutilen partaidetzarekin Txirrindulari lasterketa handia.

UMEEN TANBORRADA
 Umeen tanborrada Eskoriatzako musika bandarekin, 7etatik aurrera.

ANTZERKIA
 "Miserableak" ikuskizuna, gaueko 10.30etan Amaia antzokian.

KONTZERTUA
 Kitarra kontzertua Frantziskotarren Elizan, arratsaldeko 8etan. Arrasate Musikalek emana.

DANTZALDIA
 "Drindots" taldearekin dantzaldia, Herriko plazan, gaueko 11.30etan.

19 IGANDEA

ZINEA
 "Agárralo como puedas" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

OMENALDI MEZA
 12.30etako mezan omenaldia egingo diote Lucas Iruretagoienak, 50 urte bete ditu apaiz lanetan eta 25 urte Arrasaten.

ARABA EUSKARAZ
 Araba Euskaraz festa ospatuko da La Puebla de la Barcan. AEDk autobusak antolatatu ditu.

HAUR DANTZARIEN EGUNA
 Haur dantzarien eguna.

PINTURA LEHIAKETA
 Goizeko 9etatik ordu biak arte, aire zabaleko XIII. pintura lehiaketa, egindako lanak Monterrongo Erakusketaren aretoan jarriko dira.

MAKALLAU LEHIAKETA
 Goizeko 10.30etan Sebero Plazan. Arratsaldeko 6etan haurrentzako tortila lehiaketa Sebero plazan.

DANTZALDIA
 "Eguzki" taldearekin dantzaldia. Arratsaldeko 7etan Herriko plazan.

BANDAREN KONTZERTUA
 Aretxabaletako Bandaren kontzertua. Durana kalean, eguerdiko 12etan.

20 ASTELEHENA

ZINEA
 "Agárralo como puedas" 7etan eta 9.30etan.

21 ASTEARTEA

ZINEA
 "Agárralo como puedas" 7etan eta 9.30etan.



23 OSTEGUNA**SAN JUAN JAIEN HASIERA**

Arratsaldeko 3etan Etxafleruak Herriko plazan. 4.30etan Bonba japoniarrak. 5etan Azkona taldearekin haurrentzako animazioa Herriko plazan, 7.30etan

SALVEA

Arratsaldeko 7.30etan, San Juan bataiatzailearen parrokan.

SAN JUAN SUA

Gaueko 10.30etan, plazan.

NAGUSIEN TANBORRADA

Azkoitiko musika bandarekin nagusien tanborrada. Gaueko 11etan Herriko plazan.

DANTZALDIA

"Gaubela" taldearekin dantzaldia. Arrasateko gaiteroen kalejira. Ordubatek aurrera Herriko plazan.

24 OSTIRALA**ATBren PROGRAMAZIOA**

Arratsaldeko 6etatik 7.30etara. Sebero Altuben.

DIANA

Arrasateko gaiteroekin, goizeko 8.30etan.

ENTZIERROA

Arrasateko kaleetan zehar, goizeko 9etan.

MEZA NAGUSIA

Goizeko 11etan. San Juan Bataiatzailearen parrokan.

ERRALDOI ETA KONPARTSA

Goizeko 11etan, kaleetan zehar.

BERGARAKO MUSIKA**BANDAREN KONTZERTUA**

Bergarako udal musika-bandaren emanaldia, kaleetan zehar. Goizeko 11.30etan. Eguerdiko ordubatean Monterron parkean kontzertua.

JUBILATUEI OMENALDIA

80 urtetik gorako aiton-amonei omenaldia. Eguerdiko 12etan, Abaroan.

ZEZEN PLAZAN JAIALDIA

Zezen plazan jaialdia (zezen askatzea, pottokak..) arratsaldeko 7etan.

KALEJIRA

"Iraunkorrek" taldearekin kalejira. Arratsaldeko 7etan, kaleetan zehar.

BERTSO SAIO ETA TRIKITILARIAK

Unai Iturriaga eta Iñaki Murua bertsolariak eta Maltzeta trikitilariak. Arratsaldeko 7.30etan, Sebero plazan.

ARRASATE MUSIKALEN KONTZERTUA

San Juan kontzertua Arrasate musikal orkestraren eskutik. Gaueko 8etan, Amaia antzokian.

DANTZALDIA

"Nueva Alaska" taldearekin dantzaldia. Gaueko 11etan, Herriko plazan.

TRIKITILARIAK

Maltzeta trikitilarien erromeria. Gaueko 11etan, Sebero Plazan.

SUZKO ERRUBERAK

Gaueko 11.30etan, Santa Baratik.

25 LARUNBATA**ATBren PROGRAMAZIOA**

Arratsaldeko 6etatik 7.30etara. Sebero Altuben.

ENTZIERROA

Entzierroa Arrasateko kaleetan zehar. Goizeko 9etan.

TXIRRINDULARI LASTERKETA

1. eta 2. mailako afizionatuentzako txirrindulari lasterketa. Goizeko 9.30etan.

ERRALDOI ETA KONPARTSA

Arrasateko erraldoi eta konpartsaen desfilea. Goizeko 11etan, arrasateko kaleetan zehar.

HAURRENTZAKO PARKEA

Goizeko 12etatik ordubietara eta arratsaldeko 4etatik 7etara.

KALEJIRA BANDAREKIN

Bergarako musika eskolako gazteen bandarekin kalejira. Eguerdiko ordubatean Monterron parkean.

RUGBY PARTIDUA

Arrasateko Rugby taldea eta Baionako TipiTapa aurrez aurre, Garagartzako Rugby zelaian. Arratsaldeko 5etan.

ZEZEN IKUSKIZUNA

Landetako zezen ikuskizuna zezen plazan. Arratsaldeko 7etan.

TXALAPARTAREKIN KALEJIRA

Txalaparta txarangarekin kalejira. Arratsaldeko 7etan.

BERTSO SAIOA

Leintz bailarako bertsolari gazteak eta Kristina eta Bihotz trikitilarekin saioa. Arratsaldeko 7.30etan, Sebero plazan.

DANTZALDIA

"Bries" taldearekin dantzaldia. Gaueko 11etatik aurrera, Herriko plazan.

ZEZEN SUZKOA

Zezen suzkoa. Gaueko 12etan, Herriko plazan.



26 IGANDEA

ATBren PROGRAMAZIOA

Arratsaldeko 6etatik 8etara. Sebero Altuben.

DIANA

Arrasateko gaiteroekin, goizeko 8.30etan.

ENTZIERROA

Goizeko 9etan. Ondoren zale-tuentzat zezen plazan bigantxak izango dira.

TRIKITILARIEKIN KALEJIRA

Arrasateko trikitilariekin eta Incansables txarangarekin kalejira. Eguerdiko 11.30etan.

HERRI KIROLAK

Herri kirolak (harrijasotzaileak, txingalariak, korrikalariak, trontzalariak), zezen plazan. Eguerdiko 12etan.

KUADRILEN BAZKARIA

Herri bazkaria Zaldibarko pilotaleku ondoan. Goizeko 10etatik aurrera Marmitakoa gertatuko dute Ondarruko arrantzaleek. SUDCEk antolatua.

ESKU PILOTA PARTIDUAK

Esku pilota partiduak. Arratsaldeko 6.30etan. Zaldibarko frontoian. Lehen neurketa: Langarain (Txikito de Veneras), Reyesen (Txikita de Elosuren) aurka. Estelarra: Eloz eta Urretbizkaia, Juantxo eta Goñiren aurka.

KALEJIRA

Incansables txarangarekin kalejira. Arratsaldeko 7etan.

DANTZALDIA

Izadi taldearekin dantzaldia Herriko plazan. Gaueko 10etatik aurrera.

ZEZEN SUZKOA

Zezen suzkoa herriko plazan. Gaueko 12etan.



AFARIA

Nafarroa ibilbidean jaiotako guztiek edo bertan bizi direnek afaria izango dute uztailaren 2an. Afari horretara joan nahi baduzu, kale horretan dagoen goxotegian eman beharko duzu izena ekainaren 28a baino lehen.

EUSKARAZ PUNTATIK PUNTURA

Deba garaiko AEK euskaltegiak ikastaroak antolatu ditu uztailerako. Maila guztiak eta EGAKo klaseak emango dira. Iraupena: 3, 4 eta 5 ordu-takoak. Matrikula epea zabalik ekainaren 13tik 29ra.

CLOWN IKASTAROA

Ekainaren 27tik uztailaren 1era, astelehenetik ostiralera, Clown ikastaroa. Ohiulari taldeko Virginia Imaz eta Karmelo Muñozek emango dute. Guztira, 20 ordu izango dira eta matrikula 2.000 ptakoa da. Izenematea gazteen-tzako informazio bulegoan.

EMAKUMEEN ASANBLADA

Ekainaren 28an, asteartea, manifestazioa Portaloian, arratsaldeko 7.30etan. Asteazkena 29an, bideo emanaldia "Emakumeen artean" izenburupean. Monterronen 7etan. Osteguna 30ean, zinea "Las noches salvajes". Amaia antzokian 9.30etan. Antolatzailea, Emakumeen Asanblada.




**'CARFRA' SUKALDE
ALTZARIAK
5 URTETAKO
GARANTIAZ**

**ELEKTROGAILUTAN
MARKA GUZTIAK**

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
ISPILU-ATE
KORRIGARRIEKIN**

**BARNE ETA
KANPOKO ATEAK**



**CF
CARFRA**

Vanesa

Berango
ALTZARIAK

ERAKUSKETA

Legarre pabiloia z/g


Gipuzkoa Etorbidea

Tfnoa: 79 01 92

ARRASATE

DeLonghi

marka
italiarraren
banatzaile
ofiziala



**GURE- LEKU
TABERNA**
JAI ZORIONTSUAPASA!

Zarugalde, 17 ARRASATE

Casa Ceciaga

Mertzzeria
Puntuzko gaiak

Maalako Arrabala, 3 Tfnoa: 79 12 62
ARRASATE

ZENBAKI
Aholkularitza
ZORIONAK

*Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak*

Basabe industrialdea ARETXABALETA Tfnoa:79 88 75
Biteri Etorb. 15 ARRASATE Tfnoa: 77 12 39

LENIZ

garagardotegia

San Juan jai
zoriontsuak

Iturriotz,8
Tfnoa: 79 22 29
ARRASATE




Bergarako "Miserableak" Arrasatera

Martxoaren 12an estreinatuta zuten bargaratarrek "Les Misérables" obra euskaratuta: "Miserableak". Bergarako Musika Eskolaren 10. urteurrena zela eta eutsi zioten hain erronka zailari eta azkeanean, ondo merezitako fruituak eman zituen. Guztira 57 aktore eta 65 musikarik hartzen dute parte "opera-rock" honetan. Musikari guztiak, Bergarako Musika Eskolakoak dira; aktore eta aktorenen taldea, Musika Eskolako ikasleak eta Bergarako hainbat abeslarik osatzen dute. Bergaraz gain, Eibarreko Antzerki Ihardunaldietara ere eraman zuten ikuskizuna oihartzun handia sortuz: "Miserableak" Euskal Herrian egin izan den produkzio onentarikoa izan daiteke: Urte osoko 10 antzezlan onenen artean, 7. postuan kokatu du El Diario Vasco egunkariak.

TELOIAREN ATZEKO LANA

Teloiaren atzeko lana izugarria izan da. Dena dela, Valentin eta Miguel Moñux, Alfredo Gonzalez Chirlaque, Pello Txintxurreta eta Rafael Sanchez izenak azpimarratu



Emanaldiaren eszena bat.

behar dira. "Miserableak" musikalaren eszena-moldara eta zuzendaritza Valentin Moñuxek eraman du; euskara-moldararen arduradunak, Miguel Moñux, Pello Txintxurreta eta Rafael Sanchez izan dira; Alfredo Gonzalez Chirlaque musikaren zuzendaritzan.

Alfredo Gonzalez Chirla-

queren buruan aspalditik zebilen musikal hau montatzeko ideia eta "Les Misérables" inguruan oso ezaguna eta gustokoa zela ikusi zuenean, Londresen diska lortu eta musikarekin "engantxatuta" geratu zela dio Valentin Moñuxek: Musikal hau, modu batera edo bestera, Bergaran egin behar zela sartu ei zitzaion buruan

Alfredori. Urtebeteko lanari ekin zioten orduan.

VICTOR HUGO ETA ALAIN BOUBIL

Jatorrizko musikala bi gizon hauei zor diegu. Victor Hugo idazle frantziarrak 1845 eta 1861 urteen artean "Les Misérables" elaberria idatzi zuen: Frantziako Iraultzaren osteko urteetan Frantziako gizartearen eta munduan gertaturiko aldaketan ispilu da musikala. Alain Boubil musikariari, "Les Misérables" musikal bihurtzea bururatu zitzaion eta berak eta Claude-Michel Schönberg-ek sortu zuten frantseseko lehen bertsioa. 1980an estreinatu zen lehen aldiz Parisen eta ordutik, kartelean jarraitzen du. Azken urte hauetan, historiako musikalik ospetsuenetakoa izatera heldu da; ehun eta zazpi hiritan eta euskara barne, hamalau hizkuntzatan antzetzuta da.

Ekainaren 18an gaueko 10.30etan musikal zoragarri hau ikusteko aukera izango dugu Amaia antzokian. Sarre-rak 1200 pta. tan salduko dira takilan. Ez ahaztu, ez zara damutuko eta.)



URONDO elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE

Intsumisioen eguna

Deba Beheko eta Deba Garaiko intsumisoak Arrasaten batu ziren zapa-tuan, intsumiso eguna ospatzeko. Eguerdian Deba Beheko, Oñati eta Arrasate inguruko intsumisoak San Prudentziora hurbildu ziren bizikletaz, Gurutze Gorriaren jarrera salatzen. San Prudentzio inguruan mural bat margotu zuten eta Gurute Gorriaren etxeko kanpoaldean pankarta bat jarri zuten zintzilik. Erakunde horrek ejerzitori laguntzen diola eta objetoreak onartzen dituela salatu nahi izan zuten ekintza horiek. Ostean, intsumiso guztiak Arrasatera gerturatu ziren eta herriko plazan kontzentrazio txiki bat egin ondoren, PSE-EEK duen egoitzara joan eta kartelak jarri zituzten alderdi horrek intsumisoekiko duen politika salatzen. Gazte-xean egin zen kontzertu batekin bukatu zen eguna.

Dantza lehiaketa

Amaia antzokira Estremadurako dantzak egiten dituzten 13 talde hurbildu ziren zapa-tuan, Corazón de Encinak antolatutako zuen



Konferentzia eta inaugurazioa

Astelehenean, Comett konferentzia europarra burutu zen Eskola Politeknikoan. Europa eta beste toki batzuetatik irakasle eta espezialistak etorri ziren Arrasatera, langabeziari aurre egiteko euren herrietan erabili dituzten neurriei buruz hitzegitera. Baina kanpoko esperientzien berri izateaz gain, Arrasateko kooperatibek emandako urratsak ezagutzeko aukera ere izan zuten parte hartzaile guztiak. Langabeziari aurre egiteko hezkuntza eta enpresen munduak batera lan egin behar dutela azpimarratu zen konferentzia guztian zehar.

Konferentziari ongi etorria emateko goi mailako politikari eta kooperatibetako arduradunak hurbildu ziren Eskolara. Gainera, bide batez, goi mailako injineritzarako egin duten eraikin berria inauguratu zuten. Ohizko zinta-mozketaz eta bedeinkatu ondoren, edifizio berriaren ateak zabalik geratu ziren ofizialki.

dantza lehiaketan parte hartzen. Dantza taldeak Euskaditik eta estatuko beste hainbat tokitatik etorri ziren. Ikuskizuna maila onekoa izan zen eta jende

asko joan zen gainera Amaia antzokira, Estremadurako dantzak ezagutzera. Irabazlea, Andoaingo "Virgen de Guadalupe" taldea izan zen eta Arrasate-

koa, berriz, bederatzigarren postuan geratu zen.

San Antonio Eguna

San Antonio eguna zela eta, astelehenean ohizko bedeinkapena egin zen San Frantzisko elizan. Lora sorta eskuetan zutela, haur, guraso eta aiton-amonak ugari hurbildu zen Frantziskotarren elizara San Antoniori eskerrak ematera. Domekan, berriz, Arrasateko lagun kuadrila bat Urkiolara jaongo da oinez, bikotea edo "prorroga" eskatzera.

JAIOTZAK

- Mireia Tena Garitaonandia. Maiatzaren 29an.

EZKONTZAK

- Jose Castillejo Gutierrez eta Maria Esther Ugalde Andueza. Ekainaren 4ean. Zibilez.

HILDAKOAK

- Manuel Morales Fernandez. Ekainaren 7an. 32urte.
- Pedro Zubizarreta San Vicente. Ekainaren 8an. 65 urte.
- Alejandro Zubillaga Egiluz. Ekainaren 6an. 68 urte.
- Basilia Martinez Lozano. Ekainaren 8an. 93 urte.
- Vicente Mujika Jauregi. Ekainaren 10an. 78 urte.
- Ignacio Aranguren Arrazola. Ekainaren 11an. 77 urte.
- Antonio Elorza Inza. Ekainaren 12an. 68 urte.



ZURICH
ASEGURUAK



CASIMIRO BRIZ SALINERO
Aseguru-Aholkularia

Bulegoa: Eskatu eraikina
Araba Etorbidea 3 - 2. solairua
Tfnoa - FAX: 79 71 52

ARRASATE



MIRENTXU GOÑI *

San Juanetako ohiturak

San Juan egunarekin siniskera eta ohitura ugari lotuta daude eta gehienak Kristautasuna sartu aurretikoak dira, uda mugaren lehendikako ospakizunei lotuta. Egun honekin lotuta daude, iturriak, San Juan goizeko ihintza, belarrak, loreak, suak eta zuhaitzak.

Herri askotan San Juan bezperan mutikoek sua egiten dute, gero gainetik salto egiteko.

Beste herri batzuetan San Juan bezperan makala ekarri, adarra eta azala kendu, zuri-zuri utzi eta plazan tente jartzen dute. Gazte taldea mendira joan eta egokien irizitako makala ekartzen du, inori baimena eskatu beharrik gabe.

San Juan egunean eguzkia atera aurretik osasunerako ona zela eta, hankutsik zelaian ustez bedeinkatua zegoen ihintza hartzen zen.

Herri askotan oraindik San

Juan egunean mezetara lora-sorta bedeinkatzera eramaten da. Lora-sorta hori lizarra, larrosak, lirioa, eta San Juan margaritekin egiten da.

Etxeko ateetan lizar-adarrrak jartzen dira; arantza zuria ere bai.

San Juan goizean eguzkia atera aurretik garaua ekartzen zan, etxeko ateaurrean lurrean jartzeko.

ANTROPOLOGO-ETNOGRAFOA



USTEAK USTE

EGIZU APROBA!

Erretratu zaharretan mihatu edo adinekoekin jardun ezker, denetik ikusi-entzun-gogoratzeko aukera izaten da herriko jaien inguruan: Garai bateko San Juanek dantza, berbena, kioskoa, urtean behingo mantekadua, txurro usaina, 3. eguna, Salvea... gogora ekartzen dizkie urterik gehien dituzten mondrauetarrei. Orain, "moda berriko jaiak" egiten dira eta urtero (dirutan eta lanetan) kostatako jai-programa kaleratzen da. Programa kalean dago, eta horixe da errazena, lehen pausoa. Eta atzeritarrei galdetuta ni behintzat gehien harritu nauena, eurak zerk harritu dituen jakitea izan da: jende asko ibiltzen ei da San Juanetan kalean. Askorentzat herriko jai nagusien izenak duen xarma kanpora joatea izaten da, ordea, eta aurten apenas dago horretarako komenentzia handirik. Batzuentzat lastima, beste askorentzat estima. Jende gehiago egoteak ez du berez girorik garantizatzen; horregatik, aspaldian jaietatik aparte ibili den horietakoa bazara, jarri zure partaidetza, eta gero esan, gogoratzen zenuen haien aldean zelakoak diren. Egizu aproba!

ARANTZAZU LOIDI

TXOKO TABERNA

Gure berezitasunak pintxo
eta mokau gozoak

Otalora, 7 Tfnoa: 79 20 10 ARRASATE



- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORATZEA

Abstentzioa eta Aramaio hauteskundeetako protagonistak

Ekainaren 12an izandako hauteskundeetatik, abstentzioaren kopuru handia eta Aramaion botoa asteartean eman behar izana nabarmendu behar dira. Arrasaten %48a abstenitu egin zen, guztira 9.787 herritar. Horrela, Ezker Batua salbu, alderdi guztiek egin zuten behera. Iaz hauteskundeetan Arrasaten izan ziren emaitzekin konparatuz, PSE-EE alderdiak %45eko jeitsiera izan du, EA %31 jeitsi da, HB eta PNV %12 eta PP %5. Igoera izan duen alderdi bakarra Ezker Batua izan da, %21 baino gehiago igo baita. Udal hauteskundeak izan balira, HBk 6 zinegotzi lortuko zituzkeen, PSE-EEak 4, EAJk beste 4, Eak 3, PPK 2 eta IUk beste 2. Hala ere, hauteskunde municipalak desberdinak izaten direla esan beharra dago.







Bestalde, istripu txikiren bat salbu, hauteskunde eguna lasaia izan zen eta batez ere, hautesle goak arratsaldean

aukeratu zuen botoa ematera joateko.

Arrasate Press eta ATBk lan egin zuten

hauteskunde egunean. ARRASATE PRESSEK hauteskundearen inguruko orri berezia atera zuen. Emaitzekin batera, alderdien iritziak ere ageri ziren. Argitu beharra dago, EAK ordezkariari azken emaitza jakin baino lehen egin geniola elkarrizketa, horregatik hasieran uste zen bezala, eurodiputatu atera izanaz pozik zeudela adierazi zuen.


Aramaioan, pake te susmagarri bat azaldu zela eta, botoa emateko eskola ez zen zabaldu eta astertean egin ziren hauteskundeak. Emaitza honakoa izan zen: EAK 284 boto, EAJk 179, HBk 145, PSE-EEK 11, IUk 8 eta PPK 8. Martitzenean, komunikabide ugari hurbildu zen Aramaio-ra, hauteskunde egunaren berri jasotzera.

Emaitzak		DENETARA	
	Botoak	%	
Hautesleak	10.482	51,71	
Abstentzioa	9.787	48,29	
 HB	2670	25,96	
 PNV	2.058	20,01	
 PSE-EE	2.040	19,83	
 EA	1.458	14,17	
 Partido Popular	977	9,50	
 IU	964	9,37	
BESTEAK	41	0,40	

Lanbide Hastapenerako ikastaroak

Deba Garaiko Mankomunitateak lanbide hastapenerako prestatu dituen ikastaroetan parte hartu nahi dutenek, aurre inskripzioa norberaren herriko udal-etxean egin beharko dute, uztailaren 13a baino lehen. 1994-95 ikasturterako bi aukera izango dira; batetik, elektrizitatea, aroztegia eta mekanika ikastea edo bestela, sukaldaritza, artisautza eta ofimatika ikastea.

Lanbide eskolaren kurtso horietan sartu ahal izateko derrigorrezkoa da langabetua izatea, Deba Garaiko udalerriren batean errolatuta egotea eta 16-17 urte izatea. Baina baldintza horiek bete behar izateaz gain, plazak mugatuak dira: gutxigora behera 100 ikaslek izango dute parte hartzeko aukera. Ikasturtea irailan hasiko da eta datorren urteko ekainean bukatu. Eskolan jarraitu nahi ez duten gazteei lanbide desberdinetan aritzeko eta prestatzeko aukera ematea da ikastaro horien helburua.



OKORETEGI Kafetegia

Zorionak arrasatear guztioi

Juan Carlos Gerra Plaza, Tfnoa: 77 03 62
ARRASATE

Lankideak, kooperatibisten iritzi taldea eratu du

Kooperatiben inguruan eztabaida eta debatea sortu nahirik, Lankideak izeneko iritzi taldea sortu da kooperatibetan. Lagun Aroren barruan dauden kooperatiba guztietako bazkideentzat dago irekia, baina hasieran Fagor taldearen barruan eratu da. Plazaratu duten eztabaida, MCCren aurrean kooperatibistek duten iritzia, lantegian oso hedatua dago, bertako ordezkarien esanetan.

Talde berri honetan, kooperatiba mailan eta batez ere Fagor taldearen barruan MCCk egin nahi dituen aldaketan inguruan eztabaida bultzatu eta foroa Kontseilu Sozialetik kolektibo osora ateratu nahi litzateke. Horretarako, kooperatiben barruan iritzi talde moduan eratzeko aukerak aztertzeko ari dira, legez funtzionatu ahal izateko.

Kooperatibaren izpiritu eta filosofia jatorrizkoari eutsi nahi diote Lankideak taldean parte hartzen duten kooperatibistek: solidaritatea eta justizia sozialak indartzea, demokrazia eta partaidetza eraginkorragoan oinarritutako kooperatibak bultzatu nahi dituzte. Taldearen helburuen artean, lan baldintzak hobetzea, ekologia eta euskara aipatzen dira.

III. kongresutik aurrera MCCko erabakiak binkulanteak dira kooperatiba guztientzat, eta Lankideak taldea, orain kongresuaren aurrean ireki den epearen aurrean, kritikiko azaltzen da kooperatiben bazkidego osoaren ordezkartza 370 lagunek izatearen aurrean: "kooperatiben oinarria partizipazioa da eta hori partizipazioaren aurka doa, eta ordezkarien oreka ere sozialki ez da ondo gordetzen", Mila Larrañaga ordezkariaren esanetan. Lankideak taldearen ustez Fagor taldeari bere hartan eustearen aldeko jarrera nabarmena da bazkidegoaren artean eta "Fagor



Astelehenean 60 lagunetik gora bildu ziren.

gor barik MCCrik ez dagoela" azpimarratzen dute. Horrela bada, Fagorreko Kontseilu Sozialak Talde horretan garantia batzuri eusteko egindako eskabidaren aurrean, Kontseilu Orokorrekin erdibideko proposamen bat aztertuko dute.

Taldeentzako dirulaguntzak

Kultur taldeei zenbateko dirulaguntza emango zaien erabaki zen maiatzaren 30eko gobernu batzordean. Honako taldeei eta kopuru hauek izango dira:

Besaide espeologi taldeari:	75.000 pta
Erraldoi eta Kilikien konpartsa:	314.000 pta
Trikitixa eskolari:	550.000 pta
Lore gazteak dantza taldeari:	202.500 pta
Txikitxu arrostaitz taldeari:	243.000 pta
Gaiteroei:	67.500 pta
Al-Andalus elkarteari:	238.500 pta
Goikobaluri:	1.420.000 pta
Tunantes del Norte antzerki taldeari: ..	270.000 pta
Zeramika eskolari:	405.000 pta
Asa argazkilari taldeari:	126.000 pta
Margo taldeari:	135.000 pta
Corazón de Encina elkarteari:	238.500 pta
Comite Internazionalistei:	162.000 pta
Tailaginen elkarteari:	189.000 pta
Irratizaleei:	85.500 pta
Kapirixori:	50.000 pta
Elkarri gizarte mugimenduari:	50.000 pta

Tonbolarik ez

San Juanetan ez da AEDren Euskal Tonbolarik izango. Azken aldiz Zigarrolako jaietan jarri zuten tonbola, baina jai haietan dexente hondatu zen eta ez dute konpontzeko denborarik izan.

Turismo proiektua aurrera

Lenitz Bailaran eta inguruan turismoa garatzeko bidegarritasun plana egiten hasi da Lurdes Romano, Oñatiko turismo bulegoko arduraduna. Aurrez ere Deba Garaiko Mankomunitateak eskatuta, urtebetez aritu zen gai horren inguruko azterketa egiten baina orduan proposamenen bilduma baino ez zuen egin. Orain, proiektu konkretuak egiteko beste urtebeteko epea izango du. Besteak beste, bailara mailan turismorako zentru bat eratzea izango da proiektu horretan jasoko den proposamena.

Laguntzak

Ikastola batzuri laguntza emango die udalak. Haztegi ikastolari Kilometroak antolatzeke, Assari Araba Euskarazerako eta Abusuri Ibilaldirako, bakoitzari 40.000 ptako laguntza. Labiagari Nafarroa Oinez antolatzeke eta Xalbadorri Herri Urratserako, berriz, bakoitzari 60.000 pta.

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99



JOSU

TXOKOLATEGIA
KAFETEGIA

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66



Asteazkenean prentsaurrekoa eman zuten 1993ko ihardunaren berri emateko.

Krisia gainditu eta lanpostuak sortzen hasi da Korporazioa

Iazko urtean, 29 mila miloitako irabaziak izan zituen Mondragon Korporazio Kooperatiboak. 1993an krisiaren eragina asko igarri arren, Korporazioarentzat nahiko ona izan zen joan den urteko ihardunaldia eta 92az konparatuta, %28ko hazkuntza izan zuen.

Finantza arloari dagokionez, Euskadiko Kutxak errentabilitate maila altuari eutsi zion eta horrela, 9 mila milioitako irabaziak izan zituen. Talde industrialean, berriz, krisiaren eragina nabarmena izan zen 93an, eta salmentei dagokionez, 92an baino %2,9 gutxiago saldu zen; baina hala ere, esportazioak %19ko hazkuntza izan zuen. Makina herramienta arloan adibidez, Alemania eta Frantziako egoera kaskarrekin zerikusi handia izan zuten eta horregatik, iazko iharduera azken 25 urtetako txarrena izan zen. Elektratresnen arloan ere krisia asko igarri zen, baina hala ere salmenta eta esportazioa, igo egin ziren. Azkenik, eraikuntza eta etxearen atalen barruan, iazko iharduera ez zen guztiz ona izan, krisiaren eraginez kontsumoa asko

jeitsi baitzen, baina hala ere estatuko elektrotresnen barruan lehena izatea lortu zuen Fagorrek.

Zalantzarik gabe, iazko iharduera Eroski buru den banaketa taldearentzat izan zen onena, 4.800 milioitako irabaziak izan baitzituen eta gainera, sei hipermerkatu zabaldu ziren, 800 lanpostu berri eratuz.

Aurtengo lehen hilabetetan egindako jardunak ere, Korporazioarentzat gauzak bide onetik doazela adierazten du, 1.500 lanpostu sortu baititu lehen lau hilabetetan. 300 lanpostu industriaren alorrean eratu dira eta beste 1200 banaketa alorrean. Gainera, Korporazioko arduradunek adierazi zuten, urte hasieran egindako prebisio guztiak gaindituz doaz eta aurtengo 31 mila milioi baino gehiagoko irabaziak izatea aurrakusi dute. 94ko erronka, berriz, sektore industriala indartzea izango da eta horretarako, nazioarteko bezeroekin negozioak egiten hasiko dira. Banaketa alorrean, berriz, beste 12 hipermerkatu zabalduko dituzte, batez ere Ipar Frantzian.

Enplegua sustatzeko programa

Gipuzkoako Diputazioari, langabetuak kontratatze-ko eskabidea luzatu dio Arrasateko Udalak. Enplegua sustatzeko programaren barne eta herri bakoitzeko biztanle eta langabetu kopuruaren arabera, udal guztiei kontratazio subentzionatu batzuk egiteko aukera ematen die Diputazioak. Arrasateko Udalak 10 kontratazio egin ahal izango ditu. Horietako bost, arrisku soldataren barne aukeraturiko direnentzat zuzenduko dira eta beste bostak teknikariak kontratatze-ko. Langile horien soldataren %70a diputazioak ordainduko du. Dagoeneko Udalak 10 langabetuak kontratatze-ko eskaria luzatu dio Diputazioari. Bestalde, arrisku soldata programan parte hartu nahi dutenentzat, izenematea zabalik dago. Enpresaren bat sortzeko laguntza jaso nahi duten arrastearrek, uztailearen 29a baino lehen Udaletxean egin beharko dute eskaria.

Plenoa

Ostiralean Udal Plenoa egingo da. Besteak beste, honako gai hauek tratatuko dira: hirigune historiko osoaren berriztatzerako egindako irizpideen azterketa eta Uharkape mendi magaleko hormaren obrak adjudikatzeko lehiaketa publikoa deitzea.



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behe Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

**Hilbera
kafetegia**

Urbarri Etorbidea
ARRASATE

**MERKEKILO
Oihalak
pisura**

Ferrerias, 5
Tfnoa: 79 15 00
ARRASATE

Aurtengo San Juanetan, jende gutxiagok irtengo du kanpora

San Juanetan izaten diren jai egunak, mediterraneo aldera joateko aprobetxatu ohi ditu mondrauetar askok. Azkenaldian, San Juanak herritik kanpo ospatzea izan da herritar askoren ohitura. Baina aurtan, berriz, gauzak ez dira horrela izango.

Beti bezala, San Juanetan izango duten oporralditxoan zenbaitzuk kostaldera ihes egingo dute, baina Arrasaten dauden bidaia agentziek esan digutenez, aurtengo San Juanetan sekula baino herritar gutxiagok irtengo du kanpora.

Krisiak eragina izan dezakeela aipatzea derrigorrezkoa den arren, beharbada San Juanak astebukaeran tokatzeak gehiago eragin izan du. Aurtan, jaiak astebukaera hartzen dute oso-osorik eta horregatik, koooperatiba gehienetan ostirala bakarrik egingo da jai. Fagor Elektra-tresnetan, Euskadiko Kutxan eta Eskola Politeknikoan adibidez ostiralean, hilaren 24an jai hartuko dute baina



Mondrautarrek, kanpora joateko aprobetxatu izan dituzte San Juanak.

astehenean lanera bueltatu beharko dute langileek. Fagor Arrasate, Automation eta Sistemasekoek, berriz, jai egun gehiago izango dute. Horiek ostiral honetan hartuko dute jai eta hilaren 27ra arte ez dute lanera bueltatu beharko. Beraz, horiek hamar egunetako oporralditxoan izango dutenez, kanpora irtetentagarriagoa egingo zaie.

Hala ere, lehen esandakoa, aurtan inoiz baino mondrauetar gehiago geratuko da herritan.

Horrek, jakina, ez du esan nahi abuztuan ere jende gutxi irtengo denik. Bidaia agentziek esan digutenez, arrasatearrak udarako erreserbak sekula baino lehenago ari dira egiten, beraz, udan mediterraneo edo irletara jende asko

joango dela aurreratu dute.


Horri dagokionez aipatu beharra dago, aurtengo udan estatuko toki turistikoetara inoiz baino atzeritar gehiago joatea espero dela. Agian tokirik gabe geratzeko beldurrez, mondrautarrak udako oporrak prestatzen hasi dira dagoeneko. Beraz, abuztuan herritar asko joango dira mediterraneo aldera.

RUNBA TABERNA

JAI ZORIONTSUAK IZAN!!

Iturriotz kalea, ARRASATE

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE



MIKEL ELORZA ETXEBARRIA
25. 452 zenbakidun Aseguru Artekaria
Arrisku gerentea

Boulevard, 11 5º-A
Tfnoa: 43 04 14
Fax: 43 11 01
20.003 DONOSTIA

S.Z.O. F-95 erregistro Zka.

Erdiko kale, 4 Behea
Tfnoa-Fax: 77 13 09
20.500 ARRASATE

BENGOA

LURRINDEGIA • BITXITEGIA • OPARIAK

Zerkaosteta, 5 ARRASATE
Tfnoa: 79 28 85

BEATRIZ

**Poltsa eta
oinetako denda**

**Jai
zoriontsuak
denori!**

**Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE**



ERLAJATU ZURE OINAK IBILIAZ...
urte guztian zehar

Txutxumutxuak

San Juanetako tanborradan ,
umeenean eta nagusienean,
abanderatu moduan joango
direnak hauek izango dira.

Txikienean **Lorea Jimenez**
Ikurriña eramango du,

Kepa Etxebarria generala
izango da, **Ainhoa Balerdi**

izango da SUDCeko
abanderatua eta **Jone**

Etxeberriak Arrasateko

bandera eramango du.

Haundienean, berriz, **Lide**

Herrarte zaldian joango

da, **Saioa Lizarralde**


ikurriña eramango du,

Saioa Pildainek Arrasate-

ko bandera eta **Eider**

Solupe SUDCeko abande-

ratua izango da.



Rosa Dacostak, 16 urteko arrasatearra, Quetzal ruta egiteko aukera izango du beharbada. Izan ere, Aste Santuan lan historiko bat aurkeztu zuen, "Tratado de Tordesillas" izenburupean Quetzal Rutako saioan eta aukeratu egin dute. Hori dela eta, ekainaren 18an Sevillan beste aproba bat gainditu beharko du; hala bada, Quetzal rutara joateko aukeratuko lukete. San Frantzisko Xabier ikastolan ikasten du 2. REM Rosak. Zor-te on!



Benita Azkarraga eta Agustin Perea 1944ean ezkondu ziren, beraz, aurten urrezko eztaiak bete dituzte. Elkarrekin

bizi izaten pasatako 50 urte horiek ospatzeko bazkaria izan zuten zapatuan senitarteko guztiekin batera. Zorionak bioi!

Iñaki Arkonada 28 urteko arrasatearra eta **Jesus M^o Arregi** 40 urtekoa, bizikleta hartu eta ekainaren Iean Santiagoko bidea egitera joan ziren. Santiagora heltzeko 7 egun behar izan zituzten eta lehen esperientzia izateko, ederto pasa zuten. Errepikatzekeo gertu egongo liratekeela esan digute biek.



Resu eta Aitor, bixer bertan, ekainak 18, ezkonduko dira Dorletako Ama Elizan, Gatzagan. Aitor Mietzakoa eta Resu Gasteizkoa, bixek erronka berri bati ekingo dautsie. lagun eta adiskide guzti guztion partez, jasozue gure gogo eta asmorik ederrera, bizi zaitezela orain arte letxe, pozik eta alai. Aurrerantzien be halaxe jarraitu. Ondo pasau Ameriketa alde horretan!!



IZEN PROPIOAK

● **Nekane San Miguel,**

41 urte, arrasatearra, Euskal Herriko Autonomi Elkarte-ko Zuzentza Auzitegi Goreneko Jaurlaritza Salako partaide izendatu dute. Nekane gaur egun Tolosako Epaitegiko 3. salako epailea da, eta lan horrekin batera eramango du kargu berria. Epaille izan aurretik abokatu lanean ibili zen Nekane Eibarren eta Arrasaten.

● **Kepa Oleden,** 29

urteko atxabaltarra, Diario Vasco egunkariko Arrasateko korrespontsala izango da. Kepak kazetaritza ikasi zuen Leioan eta aurretik El Mundo egunkarian korrespontsal lanak bete ditu eta ARKOk publikista ere izan da.

● **Xabier Zubizarreta,**

49 urte atxabaltarra eta Arrasateko Alkatea, irailean egingo diren hauteskunde autonomikoetan, Gipuzkoako HBko zerrenda burua izango da.

● “Txispas” San Juanak aurten ere gertu-gertu

Jaiak eta Txispas lotuta joan ohi dira Arrasaten. Ez daramatza alperrik 7 urte jaietako batzordearen arduraz. Festa antolatzeke nor hoberik festazale amorratu bat baino: San Juanetarako egun dexente falta denean ere, eztarria itxita antzematen zaio dagoneko.

— Aurtengo jaietan zer azpimarratuko zenuke?

— Aurten alde batetik, astebukaeran izango direnez, herriko jendeak urteteko aukera gutxiago izango du eta giro gehiago egoteko modua izan daiteke. Normalean, jendeak irtetan duenean giro hotzagoa izaten da, Santamasetan alderantziz, jaiak girotzea errazagoa izaten da.

Gero, bestalde, zezen plaza toki definitiboan jarriko da, eta orain arte entzierroetan 2000 pertsona egoten baziren, orain gehitzea espero dugu. Aurrekontuetan udalean murrizketak daudenez, orain hilabete ez genekien zer diru izango zen, eta ekonomikoki eustea ere pauso bat da jaietan.

—Gastu igoera ere izango zen...

— Parte hartzen duten taldeekin negoziatu eta or-

dainketak konjelatu egiten dira.


Gero, plaza erdi janda daukagu parrokiako obra dela eta, eta ordezeko lekuak eta kioskoak alokatu behar dira, azpiegitura arazoak konpontzeko. Baina hala ere gauza asko egiten dela ikusten dut, dirua samur joaten den arren.

— Jendeak zer esaten dizu jaietz, eskabiderik egiten du?

— San Juanetan ez da samurra jaiak antolatzea, kosta egiten da. Horrelako jaietan jendea ez da asko konprometitzen. Jaietako giroa asko aldatu da, eta norberak antolatu behar izaten ditu. Egia da Arrasaten zorte handi duguna, kultur talde asko daude eta denek laguntzen dute. Baina hori ez da dena, herriak parte hartzea behar da eta hori ez da samurra. Iniziatiba falta da herriaren aldetik, baina ez da Arrasateko arazoa bakarrik, aurrera ateratzeko sekulako lana egin eta gero ez da espero den erantzuna izaten, partaidetza bajua dago, antolakutzarako dagoen oinarriaren aldean. Lanean dihardutenak desmoralizatzeke arriskua dago.

— laz kuadrilekin gertatu zenaz, aurten zelan dago kontu hori?

— Ez dut informaziorik,



baina gazteek Arrasateko jaiak alde batera utzi dituztela uste dut, ez dira inplikitzen eta gu atzetik ez gara ibiliko. Eta niri pena handia ematen dit gazteek ezer egiteko gogorik ez izatea triste da, baina euren erabakia da. Nik gustora egingo nuke eurekin burrukan. Iaz ekintza paralelo antolatu zuten, baina horrek ez du fundamenturik. Udalaren postura ez da gazteei proposamenak murrtea; gazteek parte hartu behar dute, baina logika baten barruan, aurrekontu, programa eta abar zehaztuta.

Aspaldian organizazio falta, errelebo falta edo prozesu dekadente bat ikusten nuen nik, poliki poliki behera, eta hor geratu da. Inor ez da etorri kritika bat eginez edo negoziatzera.

— Jaien antolaketan beti Txispas ikusten dugu, baina zer dago horren atzetik?

— Ni koordinatzen ibiltzen naiz, baina egia da laguntza handia daukadana. Herriaren gauzak antolatzen ibiltzen direnak beti berdintsuak dira eta ez da erraza elkartzea. Baina talde guztien lana koordinatzea da gauza, eta San Juanen erritmoa hartuta dago, eta ideia berriak proposatzen dituzten neurrian programan sartu eta aurrera. SUDC hor egoteak asko samurtzen du lana. Zorte handia daukagu Arrasaten hainbeste talde izateaz.

— Jaietako arazoak eta alde negatiboak aipatu ditugu; baina optimista bukatzeko?

— Jende gehienak oporrik ez daukala ikusita, jendea girotzeko kapaz izango dela eta euren esku dagoela, gure aldetik, egin beharrekoa egin da dago, gainerako falta da

● “Herrian jende gehiago geratuko denez, gehiago girotzea espero dugu aurten”

LORAMENDI KIROLAK



**UDA HONETAN PRIMERAN PASATU NAHI
BADUZU, HEMEN DAUKAZU AUKERA:
MENDIA, KANPINA, HONDARTZA, AISIALDIA**



Bainujantzietan
espezialistak

NEREA



**JAI
ZORIONTSUAK**

Erdiko kale, 28
ARRASATE
TFNOA: 79 13 43



Virginia Imaz

“Klown”a: Sudur gorriaren umore inteligentea

Virginia Imazek 32 urte ditu eta oso gutxitan kentzen du sudur gorria gainerik: 19 urterekin buru belarri antzerki munduan sartu zenetik, “Klown”a da bere pasioa. Ekainaren amaieran Klown ikastaro bat hasiko du Jose Karmelo Muñoz Klown irakaslearekin batera Arrasaten, Gazte Zerbitzuari esker.



— Zein da ikastaroaren helburua, klownak sortzea?

— Ez, hasiera ikastaro bat izango da. Pertsona guztiok daukagu puntu komiko, tragiko edo dramatiko bat eta ikastaro honen helburua norberaren alderdi komikoa aurkitzea izango da. Nahiko lan pertsonala izango denez, ezin izango dira 15 lagun baino gehiago ikastarora etorri eta 20 ordutako ikastaroa izango den arren, motz geratuko da.

— Zer esperientzia dauka zu ikastaro hauekin?

— Urritik maiatzera bi-

tartean, Klown formazioko ikastaro iraunkorrak ematen ditugu, beraz, esperientzia etengabea da. Klown ikastaroak 4 mailatan banatzen dira eta ziklo bakoitzak lau aste-buru irauten du, hau da, intentsiboak izaten dira. Datoren urtean ikastaroak euskaraz ematen hasiko gara, nahiz

eta orain arte ere ikastaroetan ibili direnek, nahi izan duten hizkuntzaz inprobisatzeko askatasuna izan duten, Klown-ak gainditu egiten baititu hizkuntzaren mugak.

— Nola hezitzen da “Klown” bat?

— Oso zaila izaten da pertsona bati bere alderdi komikoa ateratzea, jaso izan dugun heziketak, “serioak” izaten irakatsi baitigu, are gehiago neskoi; oso “mariperfektak” izaten irakatsi digute. Zatar, biolentu edo ia basati egoteko baimena eman behar diogu gure izakerari. Lehen mailako jokuak berreskurarazten diegu ikasleei eta edozer gauzarekin harritu daitezen saiatzen gara. Gauza guztiak ez dute buru-

tik pasatu behar, bapatekoak izan behar dute. Dena dela, guk umore inteligentea defendatzen dugu eta ez zirkoko pailazo tonto eta inteligente baten arteko ohizko umorea. Klaseetan, lehenengo, beroketa edo inibizio joku batzuk egiten ditugu: gorputz espresioa eta ahotsa lantzen dugu: izan ere kurioa da, baina inprobisatzera irteten duzunean, blokeatzen zaizun lehen gauza ahotsa izaten da.

— Zer da “umore inteligentea”?

— Guk defendatzen dugun umoreak zine mutuko aktore komikoen ildotik jotzen du, Charlot-en umorearen antzekoa: umore horrek barre egin arazi baino gehiago, hunkitu egiten gaitu eta zergatik ez, pentsarazi... Charles Chaplin-en “El gran dictador” edo “Tiempos modernos” pelikula asko pentsarazten duten filmeak dira. Umore inteligentea ez da norbaiti barre egitea, berarekin batera barre egitea baizik.

.....

“Ikastaroetan, pertsona bakoitzaren alde komikoa azalerazen saiatzen gara”



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

«Les Miserables» musikalaren selekzioan oinarritutako ikuzkizuna

Miserableak

**ARRASATE
EKAINAK 18,
ZAPATUA**

**GAUEKO 10.30etan
SARRERA: 1.200 PTA**



SARRERAK SALGAI
Ekainaren 13tik 17ra
Amaia Antzokiko takilan 20etatik 21era



ARRASATEKO UDALA

Orain, zure Aurrezki-Libretan
eta zure Kontugainean

Renault Twingo 1200cc

Ageriko Opariak



Boltsa eta nezeserezko
Bidai Hatua



Opariz jositako uda duzu aurtengoa **kutxa**. Aurreratzeagatik, besterik gabe. Eta saldo berriari **Ageriko Aurrezki-Libretan edota Kontugainean** hilabetez eusteagatik. Zatoz. Hondartzarako, sukaldarako eta bidaiari joateko opariak dituzu.

Gainera, Irailaren 2an zozketatu egingo ditugu aurreztaileen artean **3 kotxe supermoderno eta 10 urrezko erloju**. Zatoz **kutxara aurtengo udan**, aurreratu eta eskuratu zeure oparia. Uda bikaina izango duzu aurtengoa, benetan.

Zuzeneko Opariak 1994ko Uztailaren 31ra arte

Ekainaren 14ean **100.000 pezeta edo gehiagoko saldoa zeure Ageriko Aurrezki-Libretan edo Kontugainean eduki eta Uztailaren 31 baino lehen sarrera bat egiteagatik**

<u>Sarrera</u>	<u>Oparia</u>
150.000 pta.	Alco aulki tolesgarria, edo Fagor Mod. MZ-50 lauskigailua.
300.000 pta.	Taurus Mod. Robot Micro irabiagailua, edo Arcos 10 labanazko sorta.
500.000 pta.	Boltsa eta nezeserezko Bidai Hatua, edo Alco etzaulkia.

Bezeroak hitz ematen du saldo berriari, egindako sarrera bame, gutxienez hilabetean eutsiko diola. Libreta edo kontu bakoitzeko gehienaz ere jaso daitekeen opari-kopurua 2.000.000 pta.ko sarrera bati legokiokeena da.

Udako Zozketa 1994ko Abuztuaren 15era arte

3 Renault Twingo 1200c.c.
10 Longines 18K. urrezko erloju

Zozketa **1994ko Irailaren 2an** egingo da. Parte hartzeko zenbakiak **kutxa**ko bulegoetan aurkituko dituzun publizitate-liburusketan aipaturiko baldintzen arabera esleituko dira. Kotxea suertatu baina sari horri uko egin nahi liokeen bezeroari milioi bat pezetako kopurua emango zaio ordainetan. Sustaketa hau P.F.E.Z.aren arauen menpe dago.




... kutxa ...

gipuzkoa donostia kutxa
caja gipuzkoa san sebastián

San Juanak kanpotarrek ikusita

Duela urtebete etorri zen Isabel Arrasatera eta joan den urteko San Juanak bakarrik ezagutzen ditu. Arrasatear batekin ezkondua dago eta bi alaba ditu; 11 urtekoa bata eta 3koa bestea. Txikiena umezaintzara joaten da eta euskeraz hitzegiten badakiela esan digu Isabelek. Zela ez, biek agertu nahi izan dute argazkian ere.

“San Juan jaiak Arrasateko kulturako jai tipikoak dira, eta gainera, belaunaldi belaunaldi garatutako herrialde honetako historia adierazten dute. Dena dela, atzeritarrok gehien harritzen gaituena zera da: gure herrialdeko, Kubako, festen beste muturra direla San Juan jaiak: ezberdintasun handia dago Kubako eta Arrasateko festen artean. Hemen ez da Kuban beste dantzatzen eta asko edaten da. Dena dela, gehien gustatzen zaidana hemengo dantza tipikoak dira, eta noski, gaueko giroa ere oso ona da, beti irteten dugu kalera.”



**ISABEL RODRIGUEZ
KUBA**

Carmelek urtebete darama Arrasaten. Ingleseko irakaslea da eta joan den urtean ezagutu zituen lehen aldiz San Juanak.


“San Juanak, Santamasekin batera, nire jai faboritoak dira. Irlandakoa naiz eta hango jaien eta San Juan jaien artean oso ezberdintasun handia dago: Hemen han baino askoz ere jai gehiago duzue (beti ari zarete jaiak ospatzeko aitzaki bila!), eta gainera, askoz giro hobea egoten da hemen. Irlandako jaiak “formalagoak” izaten dira, kultur ekintza ugari eta gauza asko ikusteko: dena egoten da oso antolatuta, hemen gauzak askoz ere bapatekoagoak izaten dira.” Brian Ó Donnchadha-ri, bere lagunari, jai hauek herriari ematen dioten kolorea da gehien gustatzen zaiona: “San Juanetan mila koloretako herri bihurtzen da Arrasate. Dena dela, jendeak kalean pixa egiteko ohitura izaten du eta horrek ere harritu ninduen. Nire ustez, Arrasaten jaia jendea da!”



**CARMEL STEPHENS,
IRLANDA**

E.Hko arlo sozio-politikoari buruz unibertsitateko tesia idazteko etorri zen Arrasatera eta 6 urte daramatza herrian. Hala ere, bi urtetan egon da bakarrik San Juanetan.

“New Yorkekoa naiz eta bi urtetan egon naiz San Juanetan: Egia esan, oso gustoko ditut. Lehenengo aldiz etorri nintzenean, jendeak harritu ninduen, batez ere kuadrilek: eurek eramaten dute festa oso osoan. Bestalde, San Juan jaiak zentzu errebindikatiboa ere badute, presoak gogoratzen dituzte eta hori oso gizatiarra iruditzen zait. Ospatzen diren garaia oso egokia da: ekainean oso eguraldi ona egiten du eta gustora egoten da kalean. Jende asko egoten da baina ez Marixutan beste, beraz, kalean behintzat ibil daiteke eta jende gutxiago egon arren, oso ondo pasa dezakezu. Jakina, gaueko giroa ere oso gustoko dut. New Yorken, ni bizi naizen auzoko jaiak oso desberdinak dira: gauza gehiago egoten da ikusteko partehartzeko baino. Gustokoago zeintzuk ditudan esaten ez nuke jakingo”.




**JEFF BATES
NEW YORK**

Chieko Hata japonesa da eta arrasatear batekin ezkondua dagoela eta etorri zen Arrasatera bizi izatera. “San Juanetan umeen tanborradak, txistuen soinuek eta dantzak erakarri ninduten. Joan den urtean egon nintzen lehenengo aldiz San Juan jaietan. Umeak oso polit jantzita aurkitu nituen eta txistuaren soinuak, euskal kultura sentiarazi zidan. Euskal dantzak oso zailak iruditu zitzaizkidan baina era berean, oso politik. Gainera, jaietan parte hartzen zuen jendea oso alai zebilela konturatu nintzen. Nire hirian, Kumamoton (Japongo hegoaldean dago), festa goizeko 6etan hasten da eta gaez bukatu; egun osoan zehar, helduak izaten dira protagonista. Festa bukatzen denean, hurrengo urtekoa noiz hasiko den desiatzen egoten da jendea. Ez ditut ordea San Juanetako gauak ezagutzen: joan den urtean ez nuen irten logure handia nuelako, baina aurtengo... siesta egingo dut arratsaldean!”



**CHIEKO HATA
JAPON**

ZER GERTATZEN DA
NESKEKIN?



KONTUTAN IZAN BEHARREKOAK
ETA AHOLKUAK, GAUZAK
ERRAZAGO
IZAN DAITEZEN
EMAKUMEARENTZAT...
ETA GIZONEZKOARENTZAT




Sport
SASIAIN

BERTAKO ETA INPORTAZIOKO
BIZIKLETEN SALMENTA -
MOUNTAIN BIKE-AK -
ERREPIDEKOAK -
UMEENTZAKOAK -
PASIAZTEKOAK - ESTATIKOAK ...

Zaraia, 4 Tfnoa: 79 77 63

ARETXABAleta



ZARRAOA

- ✓ KOSMETIKAN ESPEZIALIZATUKO AHOLKULARIA
- ✓ LARRUZKO GAIK ETA BIDAIARAKOAK
- ✓ BISUTERIA ETA OPARIAK
- ✓ LANCASTER ETA ELISABETH ARDENen GAI ASKOREKIN OPARI BIKAINAK



ELISABETH
ARDEN
LANCASTER

Kanpatorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

Kirol ugari San Juanetan

San Juan jaietan kirol ikuskizun ugari ikusteko aukera izango dugu. Besteak beste, herri kirolak, zezenak, pilota partiduak eta txirringularitza lasterketek hartuko dute protagonismoa. Beraz, egunetik egunera, kirolari dagokionez izango dugunaren berri eman go dugu:

PILOTA PARTIDUAK

Lehen kirol ikuskizuna larunbata 18an izango dugu. San Juan XV. Esku pilota txapelketak jokatu dira Iturripeko frontoian, goizeko 10.30etatik aurrera. Alebin, Infantil eta jubenil mailakoek neurtuko dituzte indarrak. Egun horretan, baina arratsaldeko 4etan, txirringulari lasterketa haundia, Benjamin, alebin eta infantil mailetako txirringulariak neskak nahiz mutilak, bizikleta gainean, (erakutsi beharko digute zer egiteko gauza diren). Ibilbidea: Otalora, Muxibar, Otalora, Arbolapeta, Olarte eta San Frantzisko.

ZEZEN IKUSKIZUNA

Ekainaren 18tik ekainaren 24ra pasatuko gara. Ostiralean, goizeko 9etan entzierroa izango dugu, Orozkoko zezenekin. Ferrerías kalean hasiko da, Erdiko Kale eta Iturbide zeharkatu eta Laukaleko zezen plazan bukaera emango zaio. Ondoren, bigantxak izango dira. Zezenekin jarraituz, 7etan jaialdia egongo da zezen plazan (zezen as-



Aspaldiko partez, herri kirolak izango ditugu San Juanetan.

kaketak, pottokak...); jaialdia umeei begira egina dagoen arren, hain ume ez direnek ere parte hartu ahal izango dute.

TXIRRINDULARITZA

25ean kirolzaleek edukiko dute zer ikusi. Goizeko 9.30etan entzierroa, lehen aipatu dugun ibilbide berarekin. 9.30etan 1. eta 2. mailako afizionatuentzat txirringulari lasterketa, 56. San Juan saria. Ibilbidea: Arrasate-Aretxaba-

leta-Eskoriatza-Arrasate-San Prudentzio-Bergara-San Prudentzio-Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza-Gatzagain-Eskoriatza-Arrasate-San Prudentzio-Bergara-San Prudentzio-Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza-Gatzagain-Eskoriatza-Arrasate-Kanpanzar-Kataide-Eroski-Arrasate. Arratsaldeko 5etan, Garagartzako Rugby zelaian Rugby partidua. Norgehiagoka Baionako Tipitapa eta Arrasateko Rugby taldeak jokatu dute.

Eta 7etan, zezen ikuskizunak, berriz ere, nagusi. Nobedade gisa, Landetako zezen ikuskizuna. Toreatzaile hauek, toreatzeko era desberdina erakutsiko digute.

HERRI KIROLAK

Azken egunean, igandean, 9etan entzierroa. 12etan, aspaldiko partez herri kirolak izango ditugu, AEDk eta Arrasate kirolak-ek antolatuta.

Batetik Arria V. enbor mozketako munduko errekorra hausten ahaleginduko da. Bestetik, lau lagunek osatutako bi talde izango ditugu, eta harrijasotzen, txingatan, korrika eta trontzan neurtuko dituzte indarrak. Lehen taldean, Arria IV., Antonio Esnal, Iñaki Zinzunegi eta Ramon Jauroso izango dira, bestean Jose Kruz Guenaga, Iñaki Aiarza, Jose Antonio Labaka eta Joxe Apalantza. Honen gain, Aimar Irigoien 8 urteko harrijasotzailea, lanean ikusteko aukera ere izango dugu. Arratsaldeko 6.30etan, ostera, Pilota partiduak Zaldibarko frontoian; aurrez aurre Langaran (txikito de Veneras) eta Reyes (txikita de Elosu). Hurrengo neurketan, Elotz eta Urretabizkaiak, Juantxo eta Goñiren aurka jardungo dute.

Kontuak kontu, kirolez blai izango ditugu San Juan jaiak. Era guztierako kirolak, gusto guztietako kirolzaleentzat.



KULTUR FISIKO ZENTRUA

Kontzezino Kale Estalia Tfnoa: 79 97 31

* KARATEA
* MUSKULAZIOA
* SQUASHA
* MANTENIMENTUKO
* GIMNASIA

* SAUNA *
* MASAIA *
* SOLARIUM-A *
* AEROBIC-A *
* DEFENTSA PERTSONALA *

PRESTATZAILE FISIKOA
ESKUALDE MAILAKO ENTRENATZAILEA
NAZIO MAILAKO ENTRENATZAILEA

URIBE AUZOKO TXAPELKETA

Final laurdenak (emaitzak)

Nuevo taberna (*) 6 - Stocker's Hirei 2 - Los Dimy (*) 2 (1-4)
Sorgol 1 - Equis (*) 9
Belo eta Txapi 2 - Txeyenex (*) 3
(* Final laurdenetarako sailkatuak

Final erdiak (emaitzak)

Nuevo taberna (*) 1 - Los Dimy 1 (3-1)
Equis (*) 0 - Txeyenex 0 (4-2)
(* Finalerako sailkatuak

FINALAK

Ekainak 18, Larunbata

Iturripeko Kiroldegian

3. eta 4. postuak

16.00 Txeyenex - Los Dimy

Finala

17.00 Equis - Nuevo taberna

Uribe Auzoko txapelketako finalak jokoan

Uribe Auzoko txapelketa, azkenetara heldu zaigu, ia ia konturatu barik. 44 talde ibili dira astebururo astebururo nor baino nor Iturripeko kantxan. Eta hainbat partidu jokatu ostean, baditugu dagoeneko, finalisten izenak. Finala jokatuko duten bi taldeek Equis BTR eta Nuevo Taberna izango dira. Neurketa arratsaldeko 5etan jokatuko da eta Perezek zuzenduko du norgehiagoka. Baina, ordu bete lehenago 3. eta 4. postuak izango ditugu jokoan. Postu horiek, Txeyenex eta Los Dimy taldeen artean erabakiko dira. Neurketako epailea Canacho izango da. Neurketa biak Iturripeko kiroldegian jokatuko dira.

Neurketen ostean sari banaketa etorriko zaigu. Guztira, 4 sari egongo dira. Txapeldunak, garaikurra, txanpaina, urdaiazpikoa eta 40.000 pta jasoko ditu. Bigarren sailkatuaren saria ere ez da makala: garaikurra, txanpaina, urdaiazpikoa eta 20.000 pta. Hirugarrenak garaikurra, txanpaina eta urdaiazpikoa eramango ditu etxera eta 4. saria garaikurra eta txanpaina izango da. Honez gain, beste sari sorpresa bat ere egongo da, sari horrek finala ikustera doan neska politena sarituko du eta lehen aipatu dugun bezala, saria ez da azkenera arte ezagutuko. Txapelketa bukatu ondoren, antolatzaile lanetan ibili direnek afaria izango dute, futbito denboraldia bukatzeko.

Karatean ederto arrasatearrak

Arrasateko Saioa karate taldeko partaideek, Iñaki Muñoz, Iker Vitoria eta Isidor Ugartek, Euskadiko selekzioaz hartu zuten parte, autonomia arteko III. topaketetan, Santanderren. Arrasateko karatekak, senior eta kadete mailetan aritu ziren, eta Euskadiko selekzioaz gain, Cantabriakoa, Nafarroakoa eta Errioxakoa izan ziren aurrez aurre. Esan beharra dago, Arrasateko karatekak oso ondo ibili zirela



Karatean emaitza ezin hobekak lortu dituzte Arrasateko ordezkariek

txapelketan zehar eta ia konbate guztiak irabazi ondoren, senior mailan 2. postua lortu zuten eta kadetetan 3. geratu ziren. Era berean,

Isidor Ugarte kadetearen lana azpimarratu behar dugu. Izan ere, Ugartek Espainako txapeldunari eta Europako mailan 3. denari irabaztea lortu baitzuen.

Saskibaloikoak bueltan

Arrasateko saskibaloitaldeko jokalariek etxean ditugu, berriz ere. Pontevedra aldera, lehen mailara igoteko txartela esku artean ekartzeko itxaropenaz joan ziren, baina jokatu dituzten 7 partiduetan ez dute zorterik izan eta guztiek galdu egin dituzte. Dena dela, ezin dugu ahaztu denboraldian zehar talde osoak egindako lana eta taldeari zorion beroenak emateko aprobetxatuko ditugu lehen hauek.

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-
JARTZEAK
Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

HAURTOKO
Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

"EDERTU"
ileapaindegia

San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28

TOLDOS LETE, C.B.



**Eguzkiaren indarrari...
marka baten sendotasunak gogor egiten dio**
Kataide poligonoa. 14. Pabilioia (Musakola)
Tfnoa: 79 23 83 FAX: 77 04 45

SEAT

Udalaitz, S. A.



ADI!
**2. Eskuko
autoak**



Golf GTI	SS-1746-AF
Citroen AX	SS-3583-AK
Suzuki Santana	VI-9409-I
Polo	SS-9730-V

Musakola auzoa, z/g
Tfnoak: 79 88 01- 79 21 25

TROKO


JANTZIDENDA

Olarte, 6 ARRASATE Tfnoa: 79 46 94:

**BELAMENDI
KiROLAK**

Jai alaiak izan!

Gipuzkoa etorbidea, 37
Tfnoa: 77 13 41
ARRASATE



OYAL

AIZU, AIZU!

*Hemen daukagu
umeen moda!*

ERDIKO KALE, 48 ARRASATE
Tfnoa: 79 18 00





Aurten, koadrila-komisiorik ez

Joan den urteko San Juanetatik, ezin ahaztu koadrilek jai-egitarauari egindako "boikota". Azken bost urte-tako San Juanetako Koadrila-komisioa 6 lagunek osatu dute eta joan den urtean, gainontzeko 16 koadrilekin egindako bileretatik sortu ziren ekin-tza-proposamenak udalak onartu ez zituelako egin zutela "boikota" adierazi dute komisio honetakok: "San Juanak baino hilabete eta erdi lehenago hasi ginen bileretan koadrilekin eta hainbat ekin-tza prestatu genituen. Jai-batzordeari gure proposamenak aurkeztu genizkionean, ekin-tza gehiegi iruditu zitzaion eta gainera, dirurik ez zegoela adierazi ziguten: Koadrila guztiak bildu eta egitarautik desbinkulatzea erabaki genuen."

Aurten bilerak egiten lehenago hastea eskatu zion koadrila-komisioari jai-batzordeak eta horregatik, Aste Santua baino lehen egin zuten lehen bilerarako deia. Aurretik, koadrila-komisioko partaideek euren kargua utzi egingo zutela erabakita zuten eta lehen kontaktuko bilera horretan, horren berri ematea pentsatu zuten: "Bilera horretara pertsona bat besterik ez zen agertu eta orduan ezin izan genuen ezer egin. Beste batzuk gure erreleboa hartzea nahi genuen baina jendea ez da mugitu, gogo gutxi dago halako ardurak hartzeko."

"Errementari Dantza" egitarau ofizialetik kanpo egingo da

Aurtengo San Juane-tako egitarauari begirada bat bota ezker, berehala ikusten da joan den urteko ekin-tza bat falta dela: "Errementari Dantza". Ekin-tza hau joan den urtean sortu zuten Arrasateko hainbat kultur-talde, ohitura bati ekiteko asmoz. Zoritxarrez, udalaren eta kultur-taldeen arteko tira-bira ekonomiko baten ondorioz, aurtengo "Errementari Dantza" jai-egitarau ofizialetik kanpo egingo da. Arazo honetan zeresanik izan duten 3 aldean ikuspuntuak batu ditugu.

KULTUR-TALDEEN JARRERA: "HASIERAKO FILOSOFIA APURTU EGIN ZEN"

Lore Gazteak, Arrostaiz, Trikitilariak, Gaiteroak,

Txistulariak, Kilikiak eta Konpartsa, Arrasate Musikaleko alboka, metal taldea eta perkusionistak: horietatik dira Errementari Dantzaren parte hartzen duten kultur-talde guztiak. Talde hauetako partaide batek adierazi duenez, ohitura honen helburua herri-aktibitate bihurtzea zen: "Sosik ere kobratuko ez genuela adostu genuen udaletxearekin. 350.000 pta.ko aurrekontua eman zigun talde guztiok euki genitzakeen gastuak estaltzeko, baina dirudienez, gaizkiulertu bat egon zen eta zenbait taldek diru kopuru bat jaso zuten. Arazo hori konpondu nahian, kultur-zinegotziarekin bildu ginen eta azkenean talde guztiak eman zitzaion kopuru bat. Hasieran guztiok genuen filosofia apurtu egin zuen arazo hark eta aurten, taldeok udaletxeari aurrekontu bat aurkeztea pentsatu genuen.

Aurten, talde bakoitzak dituen gastuekin, aurrekontua egin eta 600.000 ptakoa irten du. Aurrekontu horren barruan, "Errementari Dantza"ri egin nahi genizkion berritasun batzuk gehitu dizkiogu eta horrek gastua ekartzen du. Udaletxeari aurrekontua aurkeztu genionean, atzera bota zuen: "caché" bezala gehiegizkoa zela esan zigun. Egia esan, guk eskatzen dugun diru kopurua sinbolikoa da: 140 lagunek hartzen dugu parte eta guztion artean banatuta, justu-justu gau horretan afaltzeko daukagu diru horrekin. Hori dela eta, gure aldetik egingo dugu "Errementari Dantza" eta ez dugu sosik ere kobratuko".

JAI-BATZORDEAREN JARRERA: "OSO MINDUTA GAUDE"

Udaleko jai-komisioak dioenez, orain arte jaietan gorde den kultur kriterioa



Dragoi mugikorrek 10 metroko luzera du.

izan nahi da talde guztiekin. Hasieran, "Errementari Dantza"ren proiektua aurkeztu zenean, ekintza horrek izango zituen helburuak erabaki ziren. Ohitura horren bultzatzaileak eta udalak, ekintza horrek herriko historia zabaltea eta jendeari ezagutaraztea, eta ekintza herriko eta partehartzailea izango zela erabaki zuten. "Ekintza guztiei ematen zaie diru kopuru bat eta ekintza honi ere diru kopuru konkretu bat emango zitzaiola erabaki genuen. Dena dela, jai-komisioaren aldetik erru bat egin genuen: Kultur talde bati diru kopuru bat eman zitzaion, hauek beste talde guztien artean banatuko zutela pentsatuz. Diru kopuru hori talde bakar batek jaso zuela konturatu ginenean, bilera bat egin genuen diferentzia hori berdintzeko eta beste diru kopuru bat bideratu zen beste taldeentzat. Jai komisioak egin zuen diru li-



Alkateak agurra dantzatzen dio herensugeari plazara heltzean.

kidazio horretan oinarrituz, kultur-taldeek balorazio oker bat egin dutela uste dugu eta horregatik, aurten, diru gehiago eskatu dute. Diru kopuru hori gehiegizkoa da eta gainera, hasierako filosofia apurtu egiten dute: "Errementari Dantza"n parte hartzeak ez du esan nahi inork kobratu behar duenik. Bestalde, aurten kultur-taldeetarako subentzietan, mozketak bat egon da, eta gure ustez, diru ga-

bezia hori nolabait estali nahieran, "Errementari Dantza"ko aurrekontuan gehitu dute. Errua hor ere egon daiteke. Oso minduta gaude eta tamalgarria da diru kontuengatik, halako aktibitate bat egitarau ofizialetik kanpo gertatzea. Oso estremistak izan direla uste dugu."

XABIER ZUBIZARRETA:
"EZ DIOT ESKARI HONI FUNTSIK IKUSTEN"

Alkatea "Errementari Dantza"ko partaide da, herensugea herriko plazara heltzen denean, berak dantzatzen dio eta agurra.


"Ez nago ados: Gauzak nahastu egin direla uste dut. Kultur talde bakoitzak jasotzen dituen subentzioak oso eztabaidagarriak dira eta ez lirerateke halako kontuetan nahastu behar. Iaz diru kopuru bera eskaini zitzaion kultur-taldeei eta "Errementari Dantza" kriterio baten pean egingo zela erabaki zen. Aurten diru gehiago eskatu dute eta nik ez diot eskari honi funtsik ikusten. Nire ustez, Udalaren eta kultur-taldeen arteko gaizki ulertua izan da eta bi aldeetatik ahaleginak egin beharko lirerateke arazo hau konpontzeko. Hobeto normaltasunez joan izan balitz: orain, jai egitarautik kanpo egingo da 'Errementari Dantza' eta pena handia ematen dit". Dena dela, dantzan egingo du alkateak.

ONDO PASATU JAIK !

Fabrika eta erakusketa:
 KATAIDE Poligonoa. 4. Pabilioia

Tfnoa: 77 01 57

ESKERRIK ASKO ARRASATE



EAJ
PNV

San Juan Jaiak

ONDO PASAU!!

ZER NAHIAGO?

Antonio Prol Bolintxoko Okina



- **Zenbat urte dituzu?** 40 urte.
- **Noiztik ogia egiten?** Duela 23 urte hasi nintzen.
- **Noiz jaten da ogi gehiago, San Juanetan ala Santamasetan?** San Juanetan ogi gehiago jaten dela uste dut.
- **Urteko zein hilabetetan jaten da ogi gehien?** Udan baino, neguan gehiago.
- **Zer gustatzen zaizu gehien San Juan jaietatik?** Orokorrean dena.
- **San Juanetan zer ordutan sartuko zara lanean?** Ordu batean sartuko naiz, ze hiruak aldera neska-mutilak bokadilotan etortzen dira eta gertu eduki behar izaten ditut ordurako.
- **Gaupasa eginda joan zara sekula lanera?** Ezkondu nintzenetik ez, baina aurretik bai, askotan gainera.
- **Baserriko ogia ala kalekoa?** Neuk egiten dudana ogia nahiago dut, kalekoa.
- **Ogia egitea artea da?** Ez, ez dut uste. Beste lanbide bat besterik ez da.
- **Gustatzen zaizu zure lana?** Bai, gustatzen zait.
- **Okina ez bazina, zer izango zinateke?** Txikitan futbolista izan nahi nuen.
- **San Juanetan oporrak izango bazenitu, kostaldera joango zinateke?** Bai, Benidorm aldera edo.
- **Españak mundialak irabaziko ditu?** Ez dut uste.
- **Zenbatgarren geratuko da?** Bostgarren edo.
- **Zezenak gustatzen zaizkizu?** Beno, ikusten ditut, nahiz eta gehiegi ez gustatu.
- **San Juanetako egunik onena?** Lan egin beharrik ez dudana eguna, 22a.
- **Non jan duzu ogirik onena?** Hemen, nik egiten dudana ogia iruditzen zait onena.

BERTSOAK

Araba Euskaraz

Asko sumatu ditut
halako beroaz
mahasti lurretara
joateko gogoaz
moteltxoena ere
piztuta ardoaz
beldur denak horkonpon,
mugaraino goaz!

Atturritik Ebrora
gure lurra bada
ez dezagun ahaztu
azkenengo alaba.
Haiek hona begira
hemengoak hara
ia ez da utopia
Arabaren euskara.

JON IÑAKI IZARZELAIA



IRAKASLE ESKOLA
Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:
1994 - 95 ikasturterako aurreinskripzio-epaia zabalik dagoela

Ikastetxe honek, Euskal Herriko Unibertsitateak onartu dizkion Espezialitateetatik, honako hauek ezartzeko eskabidea egin du 1994 - 1995 ikasturteari begira

✓ Haur Hezkuntza

✓ Atzerriko hizkuntza: Ingelesa

✓ Hezkuntza musikala

Informazioa

IRAKASLE ESKOLA. Tfnoa: 71 41 57 ESKORLATZA



eskerrik beroenak
arrasatear guztioi!!

Z E R N A H I A G O ?

Angel Alvarez

Ferialaria



- **Nongoa zara?** Tolosakoa.
- **Noiztik ari zara jairik jai lanean?** Orain dela lau urte hasi nintzen ferialari lan egiten.
- **Gustatzen zaizu herriz herri ibiltzea?** Bai eta gainera toki desberdinak ezagutzea gustatzen zaidalako aukeratu nuen lan hau.
- **Zure lana polita da?** Bai, batez ere jendea ezagutzeko aukera ematen didalako gustatzen zait.
- **Zein da barraketarako musika egokia?** Denetik jartzen dugu, baina batez ere musika "disko" eta "bakalao".
- **Zuk zein aparatutan egiten duzu lan?** Norian.
- **Zenbat kostatzen da montatzea?** Egun bat eta erdi gutxigora behera.
- **Neguan zer egiten duzu?** Neguan, hiru hilabetetan langabezian egoten naiz.
- **Ferialari izanda bizi izateko dirua irabazten da?** Bai, jakina, eta zerbait gehiagoratarako ere bai.
- **Noizbait ezbeharren bat gertatu da zu lanean ari zinela?** Ez sekula ere ez; noriak bere segurtasun neurriak ditu.
- **Estatuko beste toki batzuetara joaten zarete?** Bai, Burgos, Zaragoza eta Valentzia aldera.
- **Zeintzuk dira Euskadiko jairik onenak?** Erreenteriako Magdalenak eta San Ferminak.
- **Euskaraz badakizu?** Ez, hitz batzuk bakarrik.
- **Arrasaten lan egin ondoren nora jaoango zarete?** Zumaiara.
- **Zelan bizi izaten da rulotean?** Ondo, gure beharretara moldatua dugu eta.
- **Ferialariok asko ligatzen ei duzue...** Hori esaten dute, baina ez da hainbesterako.
- **San Juanetan euria egiten badu zer egingo duzu?** Lan egingo dut, baina ez da gauza bera izango.
- **Udalek zerga kopuru handiak ordaintzea eskatzen dizuete?** Batzuk bai.
- **Arrasateko Udalak zer eskatzen dizuete bereziki?** Jartzen dugun musikaren %50a euskarazkoa izatea.

BERTSOAK

Azterketa garaia

Ikasleontzat urte saio hau ez da, ez, bat ere fina helmuga dugu aprobatzea askok ezin lortu gaina amaitu arte ez dugu etsiko nahiko nekeza da baina helmuga iada gertu dugunez gogor jo denok esprina animo, ongi irten dadila azkenengo ahalegina!

Ikasle asko egon ohi dira bolada hontan etsita horiei nire aholkuekin egin nahi diet bisita: nahi ez baduzu liburuekin udan egitea zita ikasi gogor txuleta eta kopiaketak utzita, oporrak lasai pasa ditzazun denak "bikain" ikusita.

MAIDER OSA



Parques y Jardines


Parke eta lorategien sorkuntza.

Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



K MMERLING

PVCzko

leihogintza

Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...

UGARAN jatetxea

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12
ARETXABALETAKO

GORKA

ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

TITARE

LENTZERIA
FINA

Olarte kalea, 8
ARRASATE



ARGÍ PLASTIC

• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atatak, manparak...
• Lantegitik zure etxera zuzenean

Eskatu ezazu aurrekontua
konprometuz barik

Erakusketa berria:
Kanpatorpea, 2
(Parrokia ondoan)
ETORRI IKUSTERA!



Tallerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30 / 79 11 35



PEÑAKOBA

Zarugalde, 46
Tfnoa: 79 29 93
ARRASATE
Lizaur Arkitektoa
Tfnoa: 78 25 60
OÑATI



ATB

Berriak



San Juanetan... Kalera goaz



Urteroko ohiturari eutsiz, gure kamarak, tripodeak eta tramankulu guztiak kalera, Sebero Altube plazara jeitsiko ditugu aurten ere San Juan jaietan: Jaietako beroa eta giroa zuzen zuzenean eramango dugu zure etxera. Horren testigu, zu zeu izango zara!

Sebero Altuben, karpa baten

azpian egokituko dugu gure platoa urtero lez, eta elkarrizketa guztiak zuzen-zuzenean ikusi ahal izango dituzu bertatik pasa ezkerre. Ekainaren 23tik 26ra, arratsaldero 6etatik 8etara izango gara bertan. San Juan jai egitarauko ekitaldi guztietara eramango ditugu gure kamarak, ondoren zure etxean gra-

batutako guzti horren berri izan dezazun: Tanborrada, herri bazkaria, San Juan Sua, kuadrilak, entzierroak... bertan izango gara!

Ikus-entzute medioen mundua gertuagotik ezagutu nahi baduzu, ez duzu oso urruti joan beharrik: San Juanetan Sebero Altube plazan izango gaituzu!

PROGRAMAZIOA



20 Astelehena

13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
"Kukaratxa Motel" (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport Berezia: Herriko kirol talde guztien denboraldiari errepaso.
22.00etan
"Pontevedra 94" Saskibaloio programa berezia.

21 Asteartea

13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
Mondrasport (errep.)
14.05etan
"Pontevedra 94" (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan
22.00etan
"Egundoko Itxaropenak"

22 Asteazkena

13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
ATBketan (errep.)
14.05etan
"Egundoko Itxaropenak" (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Tertulixan
22.00etan
Dokumentala: "Eguzki sistema; Zergatik izaten dira lurrikarak?"

23 Osteguna

13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
Tertulixan (errep.)
14.05etan
Dokumentala (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
"Atzeratuen Astea 94" programa berezia
22.00etan
Euskal filmea: "Albaniako konkista"

24 Ostirala

8.00etatik 20.00etara
"San Juan Programa Berezia" Sebero Altubetik.

MULTISOL, MODAK ZURI BEGIRATZEN DIZUNEAN



BEGIRA IEZAIOTZU MODARI MULTISOL BATZUEKIN. DISEINURIK ERAKARGARRIENAK, PREZIORIK ONENEKIN: 1.950 pta.n ETA BEHAR IZANEZ GERO, KRISTALAK GRADUATUKO DIZKIZUGU. IKUS DEZAZUN! EZ ZALANTZARIK IZAN, MODAK ZURI MULTISOLEN BITARTEZ BEGIRATZEN DIZU. EEKO ARAUDIAREN ARABERA HOMOLOGATURIKO KRISTALAK.

GARANTIA OSOA
1.950 pta.n



BERGARA - ARRASATE - ORDIZIA

BETAURREKO PARE BAT EROSTEAGATIK, KAMISETA BAT OPARITZEN DIZUGU

NINA RICCI PACO RABANNE VOGUE GIANFRANCO FERRE DUCCI

ZABAL BEGIAK DISEINUARI



MULTIOPTICASEK sortzaile handien eksklusibotasuna ematen die zure begiei. Diseinu errepikaezinak emakume berezientzat. Moda Goreneko Eguzkitako betaurrekoen bilduma berria da. EEKO araudiaren arabera homologaturiko kristalekin eta MULTIOPTICASEN garantiarekin. Jar itzazu begiak bertan. Ezinobeto ikusiko duzu zure burua. MULTIOPTICASEN bakarrik.



Ibargaray, 16 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J. M. Baradiaran Enparantza, s/n - ORDIZIA

MULTIOPTICAS

Beti Zuri Begira

5.850 Pta. **Ducci** D-55 eustura

RAY BAN ZEISS TOSCANI AVENUE DUCCI

ZEISS REPORTER SILHOUETTE GIORGIO ARMANI

● Juan Luis Goikolea Margolari autodidakta

Harresi Aretoan dagoen erakusketan eskaintzen digu Juan Luis Goikoleak 16 urterekin hasi eta orain arte garatu duen obra. Espresionismotik hurbil dagoen arren, ez du bere obra sailkatu nahi eta bisitariak ikusi eta nahi dituen ondorioak atera ditzala nahi luke.

– Nola bizi izaten duzu koadro baten bilakaera?

– Koadro bat egiten hasten naizenean ez dut ideia zehatzik. Margotzen hasi eta, egiten noan heinean, elementuak sortzen dira eta hauek osagai berriak eskatzen dituzte. Koadroak, berak, eramaten zaitu. Sentitu egin behar da. Inoiz ez dut jakiten bukatzen dudanean nola geratuko den eta horretan datza, hain zuzen ere, pinturarekiko dudan interesa. Aldez aurretik ideia fijo bat izateak gehiegi baldintzatzen nau, hori ikusitako pelikula bat bigarren aldiz ikusten jartzea moduko zerbait izango litzateke. Margotzea guztiz librea da niretzat.

– 16 urterekin hasi zinen. Estiloa aldatu duzu?


– Nik estiloari ez diot garrantzi handiegirik ematen. Hala ere, urte hauetan 3 fase

beriztuko nituzke. Lehen garaian figura bakarreko irudiak egiten nituen, kolore ahulekin eta giro intimistan. Gerago, paisaiak egiten hasi nintzen eta koloreak bizia goak ziren. Orain aurreko biak nahasten dira. Paisaiak zabalagoak dira eta paisaietan figurak murgildu egiten dira. Ezin dizut esan zehazki noiz eta zergatik gertatu diren aldaketak. Prozesu baten barruan daude eta euren bilakaera propioa dute.

– Koadrorik saltzen duzu?

– Oso gutxi. Saltzen dudanean, Arrasate eta inguruetan egiten dut. Hala ere, oso jende gutxik ezagutzen du hemen nire obra. Batzutan kanpora irten behar duzu obra erakustera eta bertan ez da ezagutzen. Horrek, nahi baino gutxiagotan bada ere, herriko jendearen errekonozimendua ekartzen du. Saltzen dudanean, aldez aurretik eginitako margoak izaten dira. Inoiz ere ez dut enkargurik egiten, lehen esan bezala, ez zaidalako bukaera aurreikusirik gustatzen. Honela balitz, ez litzateke nire koadroa izango.

– Garrantzitsua deritzozu San Juanetan honelako erakusketak egiteari?



– Ondo iruditzen zait. Gainera orain gauza aldatu egin da, lehen jaietan bakarrik egiten ziren erakusketak eta hori ez da nahikoa. Orain urtean zehar ere egiten dira erakusketak eta Arrasateko margolari guztiek dute obra ezagutzera emateko aukera eta hori oso garrantzitsua da. Kultura ez da une zehatzetan bakarrik zaindu behar.

– Maritxu Kajoiko kartela ere egiten duzu. Zer izan behar du horrelako kartel batek erakargarria izateko?

– Hori egitea oso interesgarria da niretzat. Orain dela 12 edo 13 urte hasi ginen. Beste lagun batekin batera egiten dut. Ez da erraza lagun biren artean honelako gauzak

egitea eta lehen unetik erabaki genuen estilo zehatz bat izango zuela. Urte guzti hauetan gorde egin dugu estilo hori. Kartel honek Arrasaten urtean gertatu diren gauzen ezaugarriak izaten ditu, jai iragarriak gainera, herriaren historia ere isladatu behar du. Batzutan kritikak izaten ditugu, baina hori guztiz normala izaten da, obra batek ez baitu guztion gustokoa izan behar. Bakoitzak bere iritzia izan behar du eta hori errespetatu egin behar da.

– Arrasateko beste margolariekin harremanetan egoten zara?

– Harremanak izatea oso garrantzitsua da, beti ikasten da besteengandik. Baina lagunak Arrasaten eta kanpoan izan behar dira. Hala ere, lan egiteko orduan nahiago izaten dut bakardadea. Margoen barruan sartzen naiz eta oso harreman estua izaten dut egiten dudarekin.

● **“Koadroak, berak eramaten nau, Ezin diot ideia zehatz bati jarraitu. Askatasuna eman behar dit”**

Ehune

Spainketa

Elve txukuna

Txoke kuttunna

Otalora, 21
Tfnoa: 77 11 48
ARRASATE

LARUNBATETAN ERE BAI



94 - 95 IKASTURTEA

Matrikula zabalik

INGELESA

ALEMANA

FRANTSESA

AHIZKE S.COOP
Araba Etorbidea, 4 20500 ARRASATE Tfnoa: 79 03 12

AHIZKE S.COOP
Olakua, 14 20560 OÑATI Tfnoa: 71 60 00

.....
ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA
.....



J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

ARRASATE
PRESS

HARPIDETZAK



77 08 15

Lurrindegia



Opariak

Ferrerias, 28 - Behea
Tfnoa: 79 08 70
ARRASATE

**HAURDUNALDIRAKO
ERROPAK**

- Puntuzko prakak
- Jazteko prakak
- Petoak
- Bermudak
- Gonak, soinekoak
- Bainujantziak



LAURA

MODA GAZTEA


- Praka-trajeak
- Gona-trajeak
- Soinekoak
- Blusak
- Kamisetak
- Taila bereziak ditugu

ERDIKO KALEA, 30 ASRRASATE Tfnoa: 79 05 80

JAI ZORIONTSUAK IZAN

J. R. OTAMENDI
HARATEGIA

Ferrerias, 20 Tfnoa: 79 62 28 ARRASATE




MEDIKU ZENTRUA

UDALAITZ

- RADIOLOGIA • SCANNERAK**
- ANALISI KLINIKOAK •**
- EKOGRAFIK •**

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera
9etatik 1etara eta
3etatik 7.30era

Ferrerias, 56 Tfnoak: 79 44 22 eta 79 44 56





San Juan hirugarrena, 1960.


San Juan Hirugarrenez makina bat parranda egindakoak

dira mondrauetarrak, erretratuak eta beste asko ere bai, jakina. Jose Mari Lasagabaster argazkilariak zenbat eta zenbat gazte atera ote zituen honela edo antzera, kuadrilen jaiaz gozaten zeudela bere kamararen aurrean etzaten zirenean! Kuadrila hauetara kuadrilakoez gain beste asko

ere sartzen ziren, argazkian agertu nahi izaten zutenak.

1960ko San Juan hirugarrenean atera zuten erretratu hau, eta ezagutu ahal izan ditugunen artean, **Manuel Ayape, Elisabeth Zubiaga, Mari Karmen Velez de Mendizabal, Ana Maria Moneo, Maria Ange-**

les de la Cruz, Jesus Jimenez, Karlos Arzamendi, Mari Teresa Oianguren, Felix Gordejuela, Jose Eugenio Otadui, Concepcion Riviere, Jose "Maño", Maria Luz Bastardo, Valle Lagunilla, Fernando Varela eta Nikolas Iragorri.



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

**PUB
HAIZEA**




King's

Berriro

Zarugalde, 23-B

Tfnoa: 79 84 88



Felipe
Arrizabalaga
aroztegia



Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

Lubia

JAIOTAN ALAI IBIL ZAITEZEN

Biteri, 1 Tfnoa: 79 66 53
ARRASATE

OLA-OSTE

Kirol denda

Bizkaia Etorb. 10
ARRASATE
TFNOA: 79 65 34

NAROKI

Urrezko bitxiak
Opariak, Jostailuak, Liburuak,
Paperdegia
Erdiko kale, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 20 47

Pinpirin

*Lentzeria, Mertzzeria, Bainurako
eta umeentzako erropak*

Uribarri Etorbidea, 1. Tfnoa: 79 88 51

M ARENAZA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99



1962ko tanborradako neskak Udalpen.

an Juanetan tanborrada egiten zen bigarren urtea zen, 1962ko San Juan bezpera hartan. Hasiara haietan SUDC batzordeak antolatu beharrean Udalpe elkarte arduratzen zen tanborradari zegozkion guztiak egiteaz. Neskak urtero ezberdinak aukeratzen zen itxura denez, eta erropak ere Donostiatik alokatuta edo ekartzen ziren.

Orduan tanborradan parte hartu zutenek gogoratzen dutenez, jende gutxiago ibiltzen zen arren, askoz ere gehiago

hitz egiten zen irtendako neskei buruz, kalean askoz ere komentario gehiago egoten zen, aukeratuta protagonistetaz.

1962ko hartarako aukeratu zituzten neskak, erregina, dama eta kantinerak, dena bukatu ondoren txanpaina hartzera eraman zituzten Udalpera eta bertan ateratako erretratua da hau. Mutiko biak karrozan laguntzaile joan zirenak dira.

Atzeko iladan, **Arantza Alonso, Arantza Amozar-**

rrain, Pilar Leibar, Arantza Aranbarri, Osane Mendizabal, Kontxita Garro, Arantza Agirre, Ana Mari Fernandez eta Milagros Azkoaga.

Eserita, **Angelita Madinabeitia, Mari Angeles Elorza, Itziar Usobiaga, Marzelino Amozarrain, Kontxi Ugalde** (erregina), **Roman Kortabarria, Milagros Balanzategi, Mari Tere Markaide, "Nines" Bermejo** (zaldian joan zena) eta **Itziar Zumelaga.**

J



**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

Otalora z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE

ECUADOR

Bidaiak


Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

• AIPUA •

*“Igotzen ari garela
gera gasitezke;
jeisten ari garela,
nekez”*

NAPOLEON

• JEROGLIFIKOA •



Egin duzu lana?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8					9	
10				11		
12			13		14	15
16					17	
18			19			
20						

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Arrasateko elkarte gastronomikoa. 6. Joan aditzaren erroa. 8. Balioztatu. 10. Musulmanen Jainkoa. 11. Zangoaren beheko zatia. 2. Gedar. 14. Kanpo. 16. Prozesu. 18. Infusio mota. 19. Alaitasun. 20. Kezkatu.

Bertikalak 1. Ebakitzearen ekintza. 2. Oilantzeko paseko hegaztia. 3. Lerro. 4. Italiako ibaia. 5. Jauskor. 6. (Ald.) puntu. 7. Urrea. 9. Amnesty International. 13. Aipamen. 15. Itxura. 17. Gabezia.

• HOROSKOPOA •

Aries Esaten duzuna ez da barren barrene-tik pentsatzen duzuna.

Taurus Sorgin itxura izan arren, benetan aingerutxo bat zara.

Gemini Lana egin gabe dirua lortuko duzu. Hori bai zortea!

Cancer Zein isila zaren! Katuak mingaina jan dizu?

Leo Ahoa zabalik ibiltzen bazara, euliren bat sartuko zaizu.

Virgo Lo falta nabaritzen zaizu begi zuloetan. Deskantsatu pixka bat.

Libra Telebistako iragarkiei kasu gehiegi egiten diezu eta erdiak gezurrak dira.

Scorpio Aste mundiala datorikizua gainera, baina egunik onena igandea izango duzu.

Sagitarium Ez eduki oporretan inora joango zaren esperantzarik.

Capricorn Urte osoa lasai-lasai egonda, alperrik da azkenengo orduan larritzea.

Aquarius Bada ordua denetan onena ez zarela ikas dezazun.

Piscis Egin behar duzuna egin aurretik, pentsa ezazu bi bider.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18



IDIOMASTER

IDIOMASTER

UZTAILEKO INTENTSIBOAK

Ingelesa, frantsesa, alemaniera, italiera

- Maila Guztiak (Italianoa Haserako Maila).
- Mantenimendu eta Berrezkurapeneko Ikastaro Bereziak.
- 40 Klase-ordu.
- Egunean 2 ordu edo gehiago (Goizez eta Arratsalde).
- 4tik 8 lagunetako taldeak gehienez ere.
- Esperientziadun Irakasle Atzerritarrek.

PREZIOA: 17.900 pta. (MARIKULA BARNE)

MARIKULA ZABALIK

TABIRA DIETETIKA

Kosmetika eta produktu naturalak Estetisiena

Munar, 8
ARRASATE


ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

I R T A B E R N A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11




FLORES MONNICA

• Koroak • Ezkontzarako lore sortak • Landareak • Lore gunek •

Mondragones kalea, 9 etxabea Tfnoa: 79 04 84 ARASATE

ARTISAUTZAKO PASTELGINTZA GOZOTEGIA

IKUS EZAZU GURE ERAKUSTOKIA




AKELARRE

EGUNERO IREKITZEN DUGU

Pastel txikiak dira gure berezitasuna
Bergarako rellenoak / teilak
Tartatan aukera zabala
Despedidatarako tartak (erotikoak)

ZARUGALDE, 54 ☎ 77 00 71 ARRASATE

M E C A



R A P I D

1994ko UDAKO IKASTARO INTENTSIBOAK

IKUS-ENTZUTEKO MEKANOGRAFIA

Minutuko 200 pultsazioko ikastaroa, 28 ordutan.
Ziurtatutako irakaskuntza.

ORDEGANAILU BIDEZKO MEKANOGRAFIA

INFORMATIKA

MS-DOS - WORD PERFECT - dBASE IV - LOTUS 1.2.3.

Otalora Lizentziatua, 3 1. C
Tfnoa: 79 68 53 ARRASATE

• SOLUZIOAK •

GURTZEGRAMA
Horizontalak 1. Egiptea. 6. Oa. 8.
Baloratu. 10. Ala. 11. Oin. 12.
Kedar. 14. At. 16. Epalketa. 18.
Te. 19. Poz. 20. Arduratu.
Bertikalak 1. Ebaketa. 2. Gale-
per. 3. Ilada. 4. Po. 5. Erorkor. 6.
Tanto. 7. Au. 9. Ai. 13. Aipu. 15.
Tatu. 17. Eza.
JEROGILIFIKOA
Salatu naitz.

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65

Etxebizitzak

- **5 laguntzako pisua** alokatu nahi genuke Arrasaten. Tfnoa: 18 04 23. Harri.
- **Pisu bat osatzeko pertsona bat** behar dugu uztailetik aurrera. Gros. 25.000 pta. Tfnoa: 79 11 10 (gauzez edo arratsaldez deitu).
- **Bi logela ditugu** alokatzeko Aldai kalean, erdialdetik oso gertu. Merkeak dira. Tfnoa: 65 52 98.
- **Oporrak** etxe alai eta xarmant batean lo eginez igaro nahi izanez gero, zatoz Zarautza. Tfnoa: 13 28 49. Ana. Deitu goizeko 10etatik 1era.
- **Pisu bat alokatuko genuke**, posible bada, Erquin inguruan. Tfnoak: (945) 28 52 13 (Amaia) eta 64 28 36 (Nagore). Asteburutan deitu.
- **Apartamendu bat salgai** Erguinen. Tfnoa: 79 22 12. Gauzez deitu.
- **Ezkarain pisu bat** alokatzen da uztaila eta irailaren. Tfnoa: 79 31 56.
- **Laredon apartamendua** alokatzen da uztailaren 2. hamabostaldian. Tfnoa: 79 52 80. Edurne.
- **Etxebizitza alokatzen da** Carchun (Granadako kostaldean). Hondartzan bertan dago. 7 pertsonarentzako lekua. Tfnoa: (958) 62 32 05.
- **Apartamendu bat** alokatzen da Canbrils-en uztaila eta irailerako. Tfnoa: 46 05 42.
- **Bikote gazte bat** alokatzeko pisu bila Arrasate edo inguruetan. Jantzita ala hutsik, berdin da. Tfnoa: 79 02 26. Patxi. Lan orduetan.
- **Pisu bat** alokatzen da Playa de San Juan-en (Alicanten). Uztailako lehenengo hamabostaldian. Tfnoa: 79 49 98.

65 m²tako pisua salgai Arrasaten. Navas de Tolosa kalean. 2 logela, egongela, komuna eta sukaldia. Eguzkitsua eta 9 m²tako ganbara. Gas instalakuntza. Tfnoa: 79 70 58.

Lana

- **2. REM arte** klase partikularrak ematen ditut, ingelesa eta matematikak batez ere. Tfnoa: 79 13 01.
- **Neska euskalduna** eta esperientziaduna eskaintzen da garbiketarako egiteko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 62 85.
- **Ingeleseko klaseak** ematen dira. Irakasle kandiarrak. Azterketa prestaketa. Merkea. Tfnoa: 77 04 58.
- **Esperientziadun bi neska** eskaintzen dira uztailaren eguerditik aurrera umeak zaintzeko. Tfnoak: 77 14 45 (Esti) eta 79 31 82 (Mertxu).
- **Mutil bat behar dugu** dendan lan egiteko. Bidali kurrikuluma lehenbaitlehen 259 postakutxara.
- **Klase partikularrak** ematen ditut OHOkoko ikasleei. Tfnoa: 79 59 10. Elisabeth. Goizez deitu.
- **S.F.X. Ikastolak teknologia irakasle** bat behar du. Derrigorrezko titulazioa injineritza teknikoak, EGA eta EIT. Interesatuak bidali kurrikuluma 26a baino lehen. SFX Ikastola postakutxa 114. 20500 Arrasate.

Salerosketak

- **FIESTA1.6 Diesela salgai.** Matrikula SS-X. 325.000 pta. Tfnoa: 79 12 53. Jose Felix.
- **Karro-denda bat hartuko genuke** abuzturako. Ondo eta libre badago eta alokatu nahi baduzu, dei egin 77 05 22 tfnora 8etatik aurrera. Ondo zainduko dugu.
- **FORD ESCORTa salgai.** Matrikula SS-U. Prezioa: 225.000 pta. Tfnoa: 79 63 16. Luis.
- **Autoa salgai (AUSTIN METRO HLE).** SS-2888-S. Tfnoa: 77 10 20.
- **Kanping gurdia salgai.** 4 personentzako. Tfnoa: 79 06 46. Gaueko 8etatik aurrera.
- **Corsa 1.300GT. salgai.** Egoera onean. Tfnoa: 79 12 53.
- **1.000 edo 2.000 litrotako ur depositoa** badakazu eta erabiltzen ez baduzu, saldu diezagukezu. Dei egin 77 10 66 tfnora. Gaueko 9etatik aurrera.

Denetarik

- **Urrezko belarritakoa** galdu nuen asteartean Uribe auzoko inguruetan. Tfnoa: 79 96 64. Jasone.
- **Txakur txiki bat** erregalazten dut. Tfnoa: 79 52 80.
- **Larunbat gauean txamarra** galdu nuen Ekaitz taberna inguruan. Tfnoa: 79 127 20.
- **Giltzak galdu ditut.** Erquin kalea eta Bolintxo okindegiaren artean. Tfnoa: 79 10 20. Nati.

Aste Gazte

Auzolandegiak

• 18-23 urte bitartekoei zuzendutako bi auzolandegi: a) Durangon, uztailaren 4tik 15era; b) Gernikan, uztailaren 18tik 29ra. Lana: kooperazio proiektuak. Kuota: 12.000 Pta. Epea: ekainak 30.

Ikastaroak

• «Clown ikastaroa». Noiz: ekainaren 27tik uztailaren 1era. Orduetgia: arratsaldeko 4etatik 8etara. Irakasleak: «Oihulari clown» taldeko partaideak.

Arrisku soldata

• Arrasateko Udalak, 1994ko Arrisku Soldata Programarako

deialdi egin du. Enpresa ideia bat eduki eta bere negozioa martxan jartzeko asmoa dutenei zuzendua. Negozioaren bideragarritasuna aztertzeko laguntza teknikoa zein ekonomikoa eskaintzen da. Epea: uztailak 29.

Bekak

• H.A.E.E.k Administrazio eta zuzenbide-itzulpenaren eta terminologiaren alorrean prestatzeko sei bekatarako deia egiten du. Lizentziatuei, diplomatuak eta karrerako azken urtean dauden ikasleei zuzendua. Epea: ekainak 30.

Turismo arloko beka deialdia. Ikasketak, espezializazio

ikastaroak edota tesiak egiteko, estatuak zein atzerrian. Epea: uztailak 17.

Lehiaketak

• Enpresa eratzeko gazteentzako IX. ideien lehiaketa. Lanpostuak sortu eta irtenbide profesionala aurkitzeko ideak aurkeztea da xedea. 18-30 urte bitartekoei zuzendua dago. Saria: 1.100.000 Pta, eta sozietatea eratzten bada 2.500.000 Ptako saria lor daiteke.

• Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuak "Sustatu Sariak 94" deialdia egin du. espezialitateak: argazkigintza, kazetaritza, irratia, Ikusentzuteko baliapideak, Ikerketa eta Aparteko Sustatu saria. Epea: irailak 30.

"Gazteek ilusioa jartzen dute eta zaharxeago garenok lasaitasuna".

JOXE MARI BAKEROK "EGUNKARIAN"



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

AMORE EMANGO DUZU



Gure lehen San Juanak %10eko
beherapenaz ospatuko ditugu.

(Elaunaren bukaerara arte bukatuak).

Spek
Denda



**Keramika
erakusketa
eta
salmenta**

Uribarri Etorbidea, 22
Tfnoak: 79 81 80 - 77 09 59
FAX: 79 81 80



ZURE OPELAK AIRE GIROTUA DOHAINIK DOHAINIK

Freska zaitzen!

Udako freskagarria prestatzen dizu Opelek.
Zure Corsa, Astra edo Vectra berrian Aire girotu ekologikoa
(edo deskontu baliokidea) oparitzen dizu gutxienez.
Opel Injineritza Alemaniarraren oparia duzu.
Freska zaitetz!



Hilabete honetarako promozio baliagarria.



OPEL

Z A I N G A U Z K A Z U

**10^o
URTEURRENA**

TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)

Erakusketa **ARRASATEN**: Loramendi, 2. Tfnoak: 79 05 86

Zerbitzu Ofiziala **ARETXABALETAN**

TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

OPEL BANATZAILE OFIZIALAK, ESPERIENTZIAZ ONENAK.